

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2021eko urria / 320. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



## AGURREKOA

Iñaxio Ibarrodok azkenekoz gidatuko du musika banda Errosarixo domekan, 42 urteren ostean

# Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartu du Udalak

## SEI URTERAKO (2021-2026) INDARRALDIA IZANGO DU PLANAK

2013an onartu zuen Oñatiko Udalak **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana** eta orduz geroztik aurrerapauso asko eman dira gure herrian gizarte berdinzale eta justu bat eraikitzeko asmoan. Horren adibide da, esaterako, 2014an udaletxean Berdintasun sail propioa sortu izana (Gizarte Zerbitzuen sialeetik atera ondoren) edota berdintasun teknikaria kontratatu izana, besteak beste.

Baina lehen plan haren indarraldia 2020an amaitu zenez, Udalak **Berdintasunerako II. Plana** idaztea erabaki du, eremu horretan duen konpromiso irmoa berretsi eta gizartea feminismotik eraldatzeko bidean hurrengo sei urteetan aplikatuko diren politiken oinarriak finkatzeko.

### ERREALISTA ETA OÑATIRA EGOKITUTA

Urtebeteko lanaren emaitza da Udalak onartu duen Berdintasunerako II. Plana. Elhuyar-en aholkularitza tekniko eta metodologikoarekin osatu da, eta udaleko Berdintasun saileko ordezkari tekniko eta politikoez gain, udaletxeko departamentu guztietako teknikariek, Emakumeen Kontseiluko kideek, herriko talde feministetako ordezkariak eta emakume migratuek nahiz pentsionistek parte hartu dute planaren lanketan eta kontraste fasean.

I. Planean jasotako helburu eta neurrien betetze maila ebaluatu ostean, berdintasunaren ikuspegitik Oñatik egun dituen arazo eta erronka nagusiak identifikatuta osatu da plan berria, hurrengo sei urteetarako estrategiak eta bide-orria marraztuz. Oñatiko errealitatera egokitutako plana da, anbizio handikoa, berdintasunaren arloan ditugun korapilo nagusiei erantzun nahi diena.

### KONTROL NEURRIAK

Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak 5 ardatz eta 13 helburu estrategiko jasotzen ditu, eta hauetako bakoitza garatzeko neurriak ere zehaztu dira ekintza planean. Neurri bakoitza zein urtetan burutu beharko litzatekeen, arduradunak nortzuk izango diren, eta neurrien jarraipena egiteko adierazleak jasotzen dituen Excell-eko dokumentu bat ere moldatu da, planaren urtez urteko jarraipena egin eta betetze maila modu errazean neurtzea ahalbidetuko duena. Gainera, planaren garapen egokia bermatzeko beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortzea era aurreikusitua da.

Ondoko orrietan laburbildu ditugu Ekintza-Planak jasotzen dituen neurrietako batzuk. Berdintasun Plana bere osotasunean kontsultatu nahi izanez gero, udalaren webgunean ([www.oñati.eus/eu/udala/planak](http://www.oñati.eus/eu/udala/planak)) dago eskuragarri.

► Elhuyar Aholkularitzak gidatu du planaren lanketa prozesua. Udaleko Berdintasun saileko ordezkari tekniko eta politikoez gain, sail guztietako teknikariek, Emakumeen Kontseiluko kideek, talde feministetako ordezkariak eta emakume migratu nahiz pentsionistek ere parte hartu dute



► Berdintasun plan berriak 5 ardatz eta 13 helburu estrategiko jasotzen ditu, eta hauetako bakoitza garatzeko ekintza-plana era bai. Neurri bakoitza gauzatzeko epea, arduradunak eta jarraipena egiteko adierazleak ere zehaztu dira. Planaren garapen egokia bermatzeko beharrezko koordinazio egiturak ere aurreikusitua da.

## EKINTZA PLANA (laburpena)

### 1. ARDATZA

#### Berdintasunaren aldeko gobernantza

- Udal jarduera guztian genero ikuspegia txertatzeko trebakuntza areagotzea sail guztietako ordezkari politikoen eta langileen artean, eta baita azpi-kontratutako zerbitzueta ere.
- Udaleko inprimaki, datu-base eta erregistroetan sexuaren aldagaia txertatzea, horretarako sistemak egokitu. Biltzen diren datuak progresiboki genero ikuspegitik aztertzea.
- Udal-komunikazio berdinezalako eta integratzaileko irizpideak landu, adostu eta aplikatzea.
- Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bermatzea epaimahaietan, ekimenen dinamizazioan, aurkezpenetan, ekitaldi publikoetan, kale ekintzetan...
- Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun klausulak txertatzeko prozedura aplikatzea.
- Udaleko ordenantza, araudi eta administrazio-ekintzetan Generoaren Araberako Aurretzako Ebaluazioaren azterketak egiteko egitasmo pilotuak egitea.
- Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko modu eta metodologia ezberdinak aztertzea eta Oñatirkao eredu definitzea.
- Udaleko sailen arteko koordinazio egiturak finkatzea, berdintasun politikak adostu eta aplikatzeko.
- Berdintasun mailan udalerriaz gaitzeko sareetan parte hartzea.
- Sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloak sortzea.

### 2. ARDATZA

#### Zaintza-lanen ekonomia feminista

- Zaintza beharren eta zaintza baliabideen inguruko udalerrri mailako azterketa egitea, ikuspegi intersektionala aintzat hartuta.
- Zaintza eredu justu eta erantzukide baterantz transitzio formula berritzaile eta eraldatzaileak pentsatzea eta garatzea.
- Oñatiko emakumeen eta gizonen denboraren erabilaren inguruko azterketa egitea eta ondorioak gizarteratzea.
- Zaintza lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartze ildoak diseinatu eta garatzea.
- Herriko enpresetan kontziliaziarako neurrietan erantzukidetasuna sustatzea eta enpresaren batekin (edo batzuekin) egitasmo pilotu bat garatzea.
- Erakunde publikoen eskaintza birpentsatu eta hobetzea, zaintza beharretara egokitu eta horiei erantzuteko ekimen berritzaileak pentsatu eta garatu.
- Zaintzaile ez profesionalen bizi baldintzak hobetzeko programak garatzea.
- Zaintzaile profesionalen lan baldintzak hobetzea. Lan eskubideen eta kontratatzaileen betebeharren inguruko zabalkundea egitea. Lan eskubideen gaineko aholkularitza eta informazio zerbitzua. Zaintza lanak profesionalizatzeko prestakuntza ikastaroak bideratzea. Internaren figura desagerrarazte aldera sentsibilizazio ekintzak garatzea.
- Etxez-etxeko zaintza zerbitzuan eta udalaren eskumenekoak diren beste zerbitzuak kontratatzeke pleguetan lan baldintza duinak bermatzea.

### 3. ARDATZA

#### Emakumeen ahalduntzea

- Emakumeen Etxe edo Txokoaren egitasmoa gauzatu eta garatzea, herriko emakumeen adostasuna eta herriko errealtatera egokitutako formulak bilatuz.
- Neska gazteen nahiz adineko emakumeen ahalduntzerako espazio eta formulak garatzea.
- Mugimendu feministari, emakume elkarteei eta berdintasunaren aldeko konpromiso berezia duten taldeei babesa ematea, laguntza ekonomikoa emanez euren programa era autonomoan garatu ahal izateko, eta lankidetzarako bideak irekita mantenduz.
- Adierazleak sartzeko sexuaren , parte hartzearen eta erantzukizun mailaren arabera, elkartegintzaren udal fitxategian eskatzen den dokumentazioan.
- Udalerriko elkartegintza sarearen azterketa egitea generoaren eta intersektionalitatearen ikuspegitik.
- Intersektionalitatearen ikuspegidun genero arteko berdintasunaren printzipioak udalerriko elkartegintzaren funtzionamenduan eta antolamenduan sartzeko mekanismoak ezartzea.
- Herriko elkarteei formazioa eskaintzea berdintasun gaietan.
- Emakumeek udal politiketan parte hartzeko eta eragina izateko Emakumeen Kontseilua finkatzea eta udal jardunean integratzea.
- Genero ikuspegia txertatzea parte hartzeko bitarteko berrien diseinuan, bai eta martxan daudenen funtzionamenduan ere.

## EKINTZA PLANA (laburpena)

## 4. ARDATZA

Ekonomia- eta  
gizarte-eraldatzailea

- Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea. Berdintasunari lotutako prestakuntza saio espezifikoak antolatzea, kolektibo espezifikoaren beharretara egokituz.
- Berdintasuna ekonomia eraldatzeko balio gisa hartu eta gogoetarako espazio zehatza sortzea.
- Hezkidetza-egitasmoa finkatu eta indartu, eta zein beste eremuetara zabalduko den identifikatu: eskola-kirola, aisialdia, musika eskola, hezkuntza ez formaleko beste eragileak....
- Identifikatu diren eremu guztiak aztertuko dituen diagnostikoa egin, eta herri hezkidetzazalea martxan jartzeko lan ildo edo estrategia nagusiak identifikatzea eta plangintza batean zehaztea.
- Herri hezkidetzazalea dinamikaren inguruko gogoetarako GUNEA martxan jartzea, hezkidetza mahaia oinarri hartuta, eremu berrietara zabaltzeko aukerarekin.
- Emakumeen lan baldintza duinak sustatzea. Herri mailako diagnostikoa burutzea eta ondorioak gizarteratzea (emakume ekintzazale, autonomoen... errealitateak ere kontuan izanik).
- Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea. Emakumeen bizi baldintza duinak bermatzeko esku hartzeak definitu eta sustatzea.
- Pobrezia egoeran edo arriskuan dauden emakumeei Udalak eskaintzen dizkien baliabideak aztertu eta horiekiko gogobetetze maila neurtzea, eta baliabideak/zerbitzuak hobetzeko programak abian jartzea

## 5. ARDATZA

Indarkeria matxistarik  
gabeko bizitzak

- Indarkeria matxistaren detekzioan sakontzeko sentsibilizazio programak garatzea. Jaietan eman daitezkeen eraso sexisten prebentzioa.
- Oñatiko herritarrei, oro har, bideratutako informazio kanpainak abian jartzea. Atzerriko eta adineko emakumeengana hurbiltzeko mekanismoak martxan jartzea.
- Indarkeria matxista jasan duten emakumeen leheneratze integrala (juridikoa, ekonomikoa, osasun mailakoa...) bermatzea, ahalduzkoen ikuspegi batetik. Baliabideen azterkeak egin eta hauek osatzeko bitartekoak ezartzea.
- Artatze prozesuan esku hartzen duten langile guztiei formakuntza eskaintzea, indarkeria matxista kasuen aurrean artapen egokia egiteko.
- Erreparazio sozial publikorako ekimenak diseinatzea eta garatzea, emakumeekin elkarlanean.
- Ahalduzko prozesu kolektiboak bideratzea. Emakumeek lideratutako espazio kolektiboa ahalbidetzea.
- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta integralerako instituzio arteko koordinazioa hobetzea, protokoloaren ebaluazioa sistematizatuz. Jarraipen mahaian emakumeen informazioa biltzeko erabiltzen den datu-basea osatu eta aberastea.
- Herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralean. Protokoloak herriko eragile anitzekin lantzea, herri mailako sare sendo bat osatzeko helburuarekin.

Berdintasunerako  
II. Plana  
ESKURAGARRIOñatiko Emakumeen eta  
Gizonen Berdintasunerako  
II. Plana

2023eko ekaina



Oñatiko Berdintasunerako II. Plana osorik kontsultatu nahi izanez gero, Udalaren webgunean dago eskuragarri ([www.oñati.eus/eu/udala/planak](http://www.oñati.eus/eu/udala/planak)). Plan osoaren bertsio laburtua ere badago bertan.



## ► BALORAZIOAK

### Izaro Elorza

Alkatea eta Berdintasun batzordeko burua

» Bereziki Udalaren gobernantza ereduaren eragin nahi duen plana da



Osorik gaude onartu dugun Berdintasunerako II. Planarekin. Anbizio handiko plana da, Oñatik berdintasunaren arloan egun dituen korapilo nagusiei erantzun nahi diena, eta gure ibilbide orria izango dena hurrengo sei urteetan.

Urtebete pasako lanaren emaitza da esku artean dugun dokumentua. Aurrena, Berdintasunerako I. Planean jasotako helburu eta neurrien betetze maila ebaluatu genuen, eta hortik abiatuta diseinatu dugu plan berria. Elhuyar Aholkularitzak gidatu du lanketa prozesua, eta udaleko Berdintasun saileko ordezkari politikoa eta teknikariek gain, beste sail guztietako teknikariek, Emakumeen Kontseiluko kideek, talde feministetako ordezkariak eta emakume migratu eta pentsionistek ere parte hartu dute, ekarpen interesgarriak eginez. Eskerrak guztiei.

Emakume eta gizonen berdintasunerako araudi-markoa eta Emakundek 2018an onartutako VII. Plana hartu ditugu kontuan, besteak beste, baina gure planak badu berezitasunik, izan ere Zaintza lanen inguruko ardatz estrategiko bat jaso baitugu bertan. Ekonomia feministak bizitza erdigunean jartzea proposatzen du eta, ildo horretan, gure esku dagoena egin nahi dugu zaintza lanetan erantzukide-tasuna sustatzeko.

Emakumeen ahalduntzean eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan sakontzeko hainbat ekintza eta neurri ere jasotzen ditu planak, baina, batez ere, Udalaren gobernantza ereduaren eragin nahi du, genero ikuspegia administrazioan txertatuz eta berdintasuna ardatz izango duen Gobernantzaren aldeko estrategiak lehenetsiz. Horrek islada izango du gero herrian.

Beraz, dei egiten diet herritarrei, herri mailan, enpresa mailan edo beste arlo batzuetan antolatuko diren ekintzetan parte hartu eta urratsak ematera denon artean, erantzukidetasunaren bidean.

### Marijo Etxegoen

EAJko ordezkaria Berdintasun batzordean

» Plana arrakastatsua izateko denon parte hartzea ezinbestekoa da



Anbizio handiko plana da, erronka eta ekintza ugari jasotzen dituena. Eta berritzailea ere bada, ikuspuntu feminista txertatzen duelako. Gainera, lan-ardatz berri bat gehitzen du, zaintza-lanen ingurukoak.

Baina bat jartzekotan, parte hartzearen inguruan izango litzateke. Herritarren parte hartzerik gabeko prozesua izan da, eta gure talde politikoak ere 'Entzute' eta 'Kontraste' fasean bakarrik parte hartu ahal izan du. Azken horretan, lau ekarpen egin genituen, planean espreski jasotzen ez zirelako: 1. Adineko emakumeen arazoak eta beharrak identifikatzea, kolektibo zaugarria delako; 2. Zaintzaileen kontratatzaileek dituzten betebeharren inguruko informazio zerbitzu baten beharra; 3. Emakumeen osasun arazo eta behar espezifikoaren inguruko auto-zaintza sustatzea; 4. Herriko emakume ekintzaileak balioan jartzea eta beraiekin lan egiteko estrategia bat abian jartzea.

Plana arrakastatsua izateko, berdintasunera zuzendutako udal aurrekontua handitu beharko da, eta herritarren parte hartzea ere beharrezkoa izango da plan honetatik eratorriko diren ekintzetan, herri mailan, lantegian, lagun artean... Berdintasuna denon erantzukizuna da.

### Oihane Ruiz de Apodaka

Udaleko Berdintasun teknikaria

» Lan asko dugu esku artean, baina erronka polita izango da



Berdintasun Plan berriarekin, Udalak modu aktiboan jarraitu nahi du emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bizitzaren eremu guztietan lortzeko asmoarekin, orain arte egindako ibilbideari jarraiki. Udal barruan jarraitu beharreko ibilbide-orria izango da hurrengo 6 urteetan. Azpimarratu nahi dut Oñatiko errealitatera lurreratutako plana izan dadin egin dugun ahalegina; aurretik egindakoa abiapuntutzat hartuta, egungo gizarteak berdintasunaren arloan dituen eskaeretara egokitzen den asmo handiko Plan errealista eraiki dugu.

Genero zeharlerrotasunaren strategiari eman nahi izan diogun bultzada azpimarratuko nuke, genero-ikuspegia Udalaren dinamika guztietan sar dadin eta modu erantzunkidean egin dadin. Bestalde, 'Zaintzaren ekonomia feminista' ardatza nabarmendu nahi izan dugu. Bide luzea dago egiteko arlo horretan, baina oinarri bat ezarri nahi dugu 6 urte hauetan. Berdintasuna ez da zoriz edo ustekabean lortzen den zerbait, baizik eta xedez lan eginda. Beraz, Oñati berdinzaleagoa izan dadin lan asko dugu esku artean hurrengo urteei begira, baina erronka polita izango da.

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



Jaione San Miguel Ugarte

**MAPFRE**  
OÑATI






# ONARO MARTXAN

► Dagoeneko 40 baserrik dute Interneteko banda zabala Oñatiko telekomunikazio operadoreari esker. ► Herrigunean ere hasi da jendea alta ematen.

Hiru hilabete igaro dira Udalak ONARO telekomunikazio enpresa aurkeztu zuenetik eta, dagoeneko, ari da zerbitzua ematen herriko hainbat etxe eta familiari. Landa-auzoetan, adibidez, 40 baserrian instalatu dute jada ONAROn antena, eta herriko telekomunikazio operadorearen bitartez ari dira Interneteko banda zabaleko seinalea jasotzen, urte luzez izan dituzten konexio arazoei konponbidea emanda.

Balantzea, beraz, positiboa da, Xabier Igartua ONAROk lehendakariak azaldu digunez. "Bai, proiektua bera martxan jarri dugulako eta, horri esker, hasi garelako herrian dauden hainbat gabeziari erantzuna eta konponbidea ematen. Interneteko konexioa oinarritzko zerbitzua bilakatu



**Xabier Igartua / ONAROk lehendakaria**

**ONARO bera martxan jarri dugu eta hasi gara, dagoeneko, herrian dauden hainbat gabeziari konponbidea ematen. Balorazioa positiboa da.**

▲  
Xabier Igartua, ONAROk lehendakaria, instalatutako antenen konexio maila neurtzen duen aplikazioa aztertzen

da gaur egun, eta Interneteko banda zabala herritar guztien eskura jartzeko helburuarekin sortu dugu ONARO. Zoriturrez, Oñatin etxe eta erai-kin asko dago oraindik (landa gunean batez ere, baina baita herri- gunean ere) konexio duinik ez dutenak, eta horiei irtenbidea ematea da helburua, telefonia konpainia handiek egiten ez dutena".

Landa auzoetan 210 bat etxe daude Oñatin Interneteko konexio azkarrik gabe, eta horietara banda zabala eramateko supernodo bana instalatu du Udalak Belarren eta Kanposantuan. Horri esker, 30Mb-eko konexioa bermatzen du irrati-uhin bidez. Oraingoan, landa guneetako eraikinen %85era iristen da seinalea, baina udalaren asmoa da beharra duten baserri

## ► LANDA-AUZOETAKO BEZEROEN IRITZIAK

### Urtzi Zuazubiskar

Goitikoa (Santxolopeztegi)

» Hainbeste urtetan borrokan ibili ondoren, oso pozik gaude orain



Telefono konpainiarekin hainbat urtetan borrokan ibili gara, 2 mega eskaseko abiadura ematen zigulako, kontratatutakoa baino dezente gutxiago, eta gaur egun gero eta beharrezkoagoa delako Interneteko konexio on bat. Pandemiarekin larriagotu egin zen arazoa; eskolak online jarraitu behar zituen alabak, eta ezinezkoa zen. Beraz, ONAROn berri izan genuenean, proba egitea erabaki genuen eta, egia esan, oso pozik gaude orain. Beharrezko konprobazioak egin ondoren, goiz batean instalatu genuen antena eta oso ondo dabil orain Internet; agindutako 30 megako abiadura benetakoa da. Gainera, tarifyan ere alde handia dago; orain telefono mugikor bat ere gehitu dugu kontratuan eta, hala ere, lehengo aldean erdia ordaintzen ari gara. Eta bulegoan egin behar izan ditugun trasteetan oso gertuko arreta jaso dugu. ■

### Jose Mari eta Esther Iciar

Andolatza (Olabarrieta)



» Oso pozik eta eskertuta gaude ONAROn

Lehengo telefonia konpainiarekin beti ibili izan gara arazoekin; matxurak, estaldura eskasa... eta gehien behar genuenean, ez telefono eta ez Internet. Baserrietan ere gero eta gehiago behar da Internet. Azken batean hau enpresa txiki bat da. Animaliak hiltegia eramaten ditugunean, edo saltzerakoan, hainbat agiri bete behar izaten ditugu, eta Internet barik, Bergarako Nekazaritza bulegora joan behar izaten dugu (Oñatin astean behin bakarrik egoten da). Beraz, ONAROn proba egitea erabaki genuen, eta orain oso ondo doaz, bai Internet eta baita telefono finkoa ere. Pozik eta oso eskertuta gaude Onarorekin. ■

### Itziar Zelai

Torrealde, Larraña

» Asko erabiltzen dugu Internet etxean, eta orain oso gustora gaude



Arazo asko izan ditugu beti, bai Internet konexioarekin eta baita telefonoarekin ere. Pandemiarekin, gainera, areagotu egin zen arazoa, denok etxean egon behar izan genuenean, eta telefonia konpainiari behin eta berriz erreklamatu arren, alperrik.

Beraz, Udalak ONAROn proiektua aurkeztu zuenean, interesatuta geundela adierazi genuen, eta, hala, antena instalatu eta Interneteko seinalea egoki iristen zela ikusita, kontratua egitea erabaki genuen. Egia esan, orain askoz hobeto dabil Internet, eta ONAROk eskaintzen duen 30Mb-eko abiadura benetakoa da. Guk asko erabiltzen dugu Internet etxean, bai lanerako, bai ikasteko, eta baita aisialdirako ere, eta, egia esan, orain oso ondo dabil eta oso gustura gaude, eta tarifa ere ona dela iruditzen zait. ■

guztietara iristea. "Tokian tokian aztertzen dugu seinalearen kalitatea, eta antena bidez iristen ez garen lekuetara konexioa zuntz bidez eramateko aukerak aztertzen eta baloratzen ari gara" adierazi digu Igartuak.

### HERRIGUNEAN ERE BAI

Herriguneari dagokionez, zuntz bidezko konexioa eskaintzen du ONAROk, 100 edo 100Mb-eko abiadura bermatuz bai igoeran eta bai jaitsieran (600Mb-eko abiadura ere kontrata daiteke). Oraingoz, MásMóvil-en sarea erabiltzen du, baina helburua da sare propioa hedatzea herrigune osora, bere egunean Oñargik instalatu zuen zuntz sarea baliatuz.

Zuntz haria Oñargi-ren transformazio zentroetatik etxeetara eramatea falta da sarea osatzeko, eta lan hori modu komunitarioan egitea da ONAROn asmoa; hau da, interesa du-



### ► ZERBITZU INTEGRALA

Zerbitzu integrala eskaintzen du ONAROk: Internet konexioa, telefonia mugikorra eta telefonia finkoa. Ikusi eskaintza guztiak <https://onaro.eus> webgunean

### ► ZUZENEKO INFORMAZIOA ETA ARRETA

Bidebarrieta kaleko 24 zenbakiko bulegoan. 943 718 010 / [arreta@onaro.eus](mailto:arreta@onaro.eus)

ten bizilagunen komunitateek hartu beharko dute bere gain zuntza etxeetara eramatearen kostua. "Kontuan hartu behar da, beste telefonia konpainia batzuen tarifekin alderatuz, ONAROk urtean 300 bat euro aurrezteko aukera ematen duela eta, beraz, urtebetean amortizatu daitekeela egin beharreko inbertsioa" azaldu digu Igartuak.

Momentu honetan, ONARO Olakua eta San Martineko bizilagunekin ari da aztertzen eta baloratzen zuntz sarea auzune horietan hedatzeko aukera, eta herriguneko hainbat etxe-bloketan ere azaldu dute interesa. "Poliki poliki ONAROn egitura sendotzen ari gara, oñatiar guztiei beharrezko eta oinarrizko telekomunikazio zerbitzua ahalik eta azkarren eman ahal izateko" adierazi du Igartuak. ■



© Natxo Santos

## Errosarixo domekan azkenekoz ariko da musika banda Iñaxio Ibarredoren batutapean

### 42 URTEZ IZAN DA HERRIKO MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA

**B**erezia izango da musika bandak urriaren 3an (Zubikoa kiroldegian, 13:00) emango duen kontzertua, Iñaxio Ibarredoren agurrekoa izango baita. Lau hamarkada luzeren ondoren, azkenekoz ariko da musika banda Ibarredoren batutapean, eta honi eskerrak emateko eguna izango da urte guzti hauetan herriko musikaren alde egindako lan bikainagatik. Berarekin izan gara agurraren bezperatan.

**Iritsi da agur esateko unea?**  
Bai. Datorren urtean uztea pentsatuta neukan, apirillean 80 urte beteko ditut, baina erreleboa orain egitea proposatu didate, eta ni konforme.

**Errepertorio berezia pres-tatu al duzu azken kontzerturako?**  
Niretako esanahi berezia du-

ten pieza batzuk joko ditugu. Palacin familiari eskainitako *Bakarmin* pasodoblearekin hasiko gara, eta nire aitaren *Oñati* zortzikoa edo Agustin Ugarteri eskainitako *Kuadro bat melodixa bat* obra ere joko dugu, besteak beste.

Azkenengo pieza Iñigo Ugartek zuzenduko du. Nik konposatutako lanetan *Iñazio*

*Ibarredo Ugarte* sinatzen dut beti, eta nolabaiteko keinu bat da, esateko, nahiz eta Ibarredo joan, Ugarte hor geldituko dela aurrerantzean ere zuzendariorde bezala.

**Zuzendari lana utziko duzu, baina hainbat instrumentu jotzen duzula kontutan izanda (flauta, klarinetea, saxofoia, bonbardinoa...) musika bandan jarraitzeko asmorik ba al duzu?**

Ez dakit. Ez dut pentsatu ere egin oraindik. Edozein modutan, iruditzen zait nire zikloa amaitu dela eta etapa berri bat hasten dela; beraz, ez dut uste jarraituko dudarik.

**Eta parrokiako koruan?**

Dagoeneko 53 urte daramat parrokiako koruko zuzendari eta, oraingoz behintzat, jarraitzeko asmoa daukat. Ez du musika bandak besteko dedikaziorik eskatzen eta, gainera, entsaioen ondoren *txikito* batzuk hartzeko bidea ematen digu, lagunartean.

**42 urte eman dituzu musika bandako zuzendari. Zein da balantzea?**

Balantze txarra izango litzateke nik damuren bat izango banu, baina ez daukat. Ez dago ondo neuk esatea, baina uste dut herriarentzako lan polita eta ona egin dugula



urte guzti hauetan, ondoan izan ditudan musikari guztiekin batera, jakina.

Akatsen batzuk ere egingo nituen, nola ez, baina musikariekiko begirunez jokatzen saiatu naiz beti, eta inoiz hitz edo keinu zatarren bat egin badut, gauzak aurrera ateratzeko gogoagatik izan da, eta ez agintekeriagatik.

**Ez da ahaztu behar, gainera, zu ez zarela sekula musikari profesionala izan?**

Ez, ni hodi eta letoi saltzailea izan naiz Garay fabrikan, 48 urtez, eta bandarena aparte izan da. Jubilatutik ondoren denbora gehiago izan dut, baina garai baten, zapatu eta domeka gehienak lokalean pasatzen nituen, hau dena eramateko lan asko egin behar da eta.

**Herri mailan baloratzen al da behar bezala musika banda?**

Baietz uste dut, ze bandarik ez dagoenean jendea akordatzan da. Berrehundik gora laguneko publiko leiala du bandak, eta Santa Anako emanaldi gehienetan aretoa bete egiten da. Eta herriko jai eta ospakizun nagusietan musika bandak egiten duen ekarpena ere eskertzen eta baloratzen dute herritarrek.

**Azken urteetan, kontzertu eta ospakizun nagusiei lotuta ezagutu dugu musika banda, baina garai batean erromerietan ere jotzen zenuten, ezta?**

Bai, nire aita zuzendari zen garaiko kontuak dira horiek.

San Isidro, San Migel Txiki, Atzeko Kale, San Lorentzo... makina bat auzo-jaietako erromerietan jotzen genuen. Mariano San Migelek bidaltzen zizkigun Madriletik modan zeuden abestien partiturak, *Los Bravos* edo *Beatles* bezalako taldeenak, eta jendea gustura ibiltzen zen dantzan.

Bestalde, berdura plazan, sarrera ordainduta antolatzen ziren dantzaldietan ere jotzen genuen, eta plazako baila-bleak ere oso arrakastatsuak izaten ziren.

**Musika bandetan ez ezik, dantzaleku giroko beste orkestra batzuetan ere ibili zinen garai batean, ezta?**

*Orquesta Arrasate* izeneko taldean ibili nintzen, soifua eta saxofoia jotzen. Garai hartan *Ariznoa* dantzalekua oso modan egon zen, eta hantxe aritzen ginen ostegun, zapatu, domeka eta jai egun askotan. Baita Musakola hotelean ere. Jose Antonio Villar zen abeslaria. Gero, Bergarako *Orquesta Lazkano* taldean ere ibili nintzen, Bittor Olalde 'Kamiñero'-rekin batera, eta makina bat ezkontza eta auzo-jaietan jo genuen.

**Zer esango duzu agurreko kontzertuan?**

Apartekorik ez. Joko ditugun obra ezberdinen nondik norakoak azaldu eta, horrez gain, eskerrak emango dizkiet urte guzti hauetan ondoan izan ditudan musikariei, udalari eta herritar guztiei oro har. Nire zikloa amaitu da, baina musika bandak hor jarraituko

# MUSIKARI LOTUTAKO BIZITZA

Ez da musikari profesionala izan. Hijos de Juan de Garay enpresan lan egin zuen 48 urtez, hodi eta letoi saltzaile, harik eta erretiroa hartu zuen arte, baina Iñaxio Ibarrondo Ugarteren (Oñati, 1942) bizitza musikari lotuta egon da beti.

Sei urteko mutiko koskorra zela, Victoria Eugenia antzokian jo zuen danborra Higinio Uriarte ea Agustín Zarketarekin batera, eta urte hartan bertan hasi zen udal musika bandan jotzen, Antonino (zuzendaria) aita eta Felix (bajua) aittajaunarekin batera, eta bertan jardun zuen harik eta musika banda desegin zen arte, 1970ean.

Aitarekin ikasi zuen musika eta hainbat instrumentu jotzen: flautiña, flauta, klarinetea, saxofoia, bonbardinoa, pianoa, akordeoia, organoa... Zuzendaritza eta konposizio



Iñaxio, mutiko koskorra zela, Antonino aitta eta Felix aittajaunarekin batera

ikasketak Castro eta Escudero maisuekin osatu zituen.

Soldadutza garaian Garellanoko (Bilbo) banda militarreko kidea izan zen, eta Oñati musika bada barik egon zen urteetan Bergarako bandan aritu zen. Horrez gain, Barakaldo, Portugalete, Mungia, Zornotza, Arrasate, Elgoibar, Eibar eta Azpeitiako bandetan ere jo zuen, eta Irun,

Mutriku, Azkoitia eta Donostiako kontserbatorioko musika bandak zuzendu zituen, besteak beste.

1979an Oñatiko musika banda berriz ere martxan jartzeko eskaria jaso zuen Udalaren aldetik, 30 laguneko musikari taldea osatuta, Korpus jaiari bultzada emateko helburuarekin. Ibarrondok heldu egin zion erronkari, baina baldintza bat jarrita: herriko jai eta ospakizunetara mugatu barik, musika bandak jarraipena edukitzea. Eta, hala, hitzarmena sinatu zuten Udalarekin, instrumentuak eta jantziak erosteko, eta urtean zehar eskaniko zituzten kontzertu eta bestelako ekitaldien egutegia finkatu zen.

**Catalana Occidente** **Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbide: Moxon 5, behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**PINTURAS URBIA MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



30 laguneko taldearekin hartu zuen bandako zuzendaritza Ibarrodok eta ia 60 laguneko musika banda utziko du. 2017ko argazkia.

© Santi Mendiola

du, zorionez, eta horixe da inportanteena.

### Esku onetan geratzen al da musika banda?

Bai. Ez dakit zenbaterainoko aldaketak egingo dituzten, baina formazio eta ibilbide luzeko mutila da Aitor Biain, eta esku onetan geratzen da.

### Eta musika banda bera nola dago?

Azken urte eta erdiko jarduna ez ohikoa izan da, Covid-aren ondorioz, baina pandemia hasi aurretik kategorixan gunden, inora joateko beldur barik.

### 30 laguneko taldearekin hartu zenuen bandako zuzendaritza, eta ia 60 laguneko banda gazte eta sendoa utziko duzu. Horrek ere esan nahi du zerbait.

Baina meritua ez da nirea bakarrik, hemen gabiltzan guztiona baizik. Ez da erraza 60 laguneko taldea eramatea, baina musikariek ez didate sekula lanik eman.

### Denbora libre gehiago izango duzu orain. Beste zaletasunen bati heltzeko asmorik?

Beti erakarri izan nau pinturak, baina ez dut denborarik izan, eta orain proba egiteko asmoa daukat. Jaien ondoren hasiko naiz. Horrez gain, irakurtzea asko gustatzen zait eta ibiltzea ere bai. ■

## » MUSIKA BANDAKO KIDEEN BEGIETATIK

### » MIGUEL ANGEL ZABALETA

#### Isileko lan asko egin du Iñaxiok, kanpotik ikusten ez dena

Oñatiko musikaren alde Iñaxiok egin duen lana eta sartu duen ordu pilla azpimarratuko nituzke. Gauza bat da kalean ikusten dena, baina horren atzean ikusten ez den lan handia dago. Lan isila. Iñaxio beti saiatu da bandako kideen alde egiten, eta meritu handia dauka hainbeste urtetan musika bandari eustek, ez baita samurra 50-60 laguneko taldea kudeatzea. Oso linea onean dagoen banda uzten du, jende gaztearekin eta aurrerako bide onarekin. Uste dut Iñaxiok badaukala herritarren aitortza, eta ondo merezita gainera.



### » ISABEL MARROQUIN

#### Iñaxioren zintzotasuna eta diskrezioa apartak iruditu zaizkit beti

Iñaxiori buruz ezin dut hitz ederrak baino esan. Bere zintzotasuna eta zuzentasuna, eta bere diskrezioa apartekoak iruditu zaizkit beti. Bandako zuzendaria izateaz gain, konposatzaile edo sortzaile gisa ere lan handia egin du, eta gauza asko irakatsi dizkigu musika bandako kide guztioi. Askotako botako dugu faltan. Gogoan dut, ezkonberritan Oñatira iritsi nintzenean berak irakatsi zidala solfeoa eta berak ireki zizkidala musika bandarako ateak, eta kontuan hartuz nire bizitzan musika zein garrantzitsua den, beti egongo naiz eskertuta Iñaxioren.



### » OIHANA URKIA

#### Banda zuzentzeaz gain, musika sortzeko ere gaitasun handia du

Txiki-txikitatik ibili naiz Iñaxioren berak erakutsi zidan solfeoa, eta anekdota moduan, berak erabaki zuen, nire tio Pedrorekin batera, oboea joko nuela, horixe baitzen musika bandan falta zen instrumentua. Lan handia egin du Iñaxiok. Musika eskolarik ez zegoenean berak irakatsi zien solfeoa herriko neska-mutiko askori, eta musika banda ez ezik, koruak ere zuzendu ditu. Gainera, zuzendari lanaz gain, partiturak moldatzeko eta musika sortzeko ere gaitasuna aparta du; hor daude berak konposatutako obra eder asko.



### » AGUSTIN UGARTE

#### Barru-barruan darama musika Iñaxiok eta beti egon da irakasteko prest

Antoninorekin hasi nintzen ni solfeoa ikasten, eta 11 urterekin sartu nintzen bandan. Ordurako Iñaxio aurretik zebilen eta haren arrastoa asko ikasi genuen. Gero, bandako zuzendaritza hartu zuenean, ia hutsetik hasi zen, 9 urteko etenaren ostean, eta asko irakatsi zigun bandako kide danoiri. Barru barruan darama musika eta beti egon da laguntzeko prest. Zuzendari eta instrumentista aparta da eta partiturak moldatzen eta musika sortzen ere lan handia egin du. Oso saiatua eta bihotz oneko pertsona da, eta musika banda oso maila onean uzten du hurrengoendako.



# “PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA”

TELEFONO FINKOA

+ **FIBRA**  
100Mb

+ **20Gb**  
MUGIKORRA  
DEI MUGAGABEEKIN

**35** €/HILEAN  
(BEZ bame)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!  
Alta ematea eta instalazioa **DOAN**



Tarifa hau kontratatzeko  
azken egunak!!

## EXTRAK:

\*Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak

**TV** PREMIUM + **6** €/HILEAN

**2. ETXEBIZITZA**  
FIBRA + FINKOA + **18<sup>90</sup>** €/HILEAN  
(Estatuko edozein herritan)

### •MUGIKOR GEHIGARRIAK

**5Gb** + **3** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**8Gb** + **5** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**20Gb** + **8** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

Tarifa guztiak ezagutu eta kontratatzeko,  
zatoz Iturritxo ostean dagoen gure dendara!



Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

MÁSMÓV!L



**LIZKER**  
INFORMATIKA

# Gomiztegiko Artzain Eskolan

## 25. IKASTURTEA ABIAN

► 15 ikaslek ekin diote ikasturte berriari. Orain arte 297 ikaslek jaso dute artzain diploma Gomiztegin.

**F**ormazioaren bidetik, artzaintza biziberritzeko asmoz sortu zen Gomiztegiko Artzain Eskola 1997an, Nikolas Segurola frantziskotarra, Eduardo Urarte ardi-genetikan aditua, eta Jose Manuel Goikoetxea orduko Nekazaritza kontseilariaren bultzadari esker, batez ere. Orduz geroztik, ia 300 gaztek jaso dute formazioa bertan, eta gainbeheran zetorren artzain lanbideari prestigioa ematen lagundu du, beste elkarte eta erakunde batzuekin elkarlanean. Batis Otaegi eskolako zuzendariarekin aztertu dugu urte hauetako ibilbidea, ardi sektorearen egungo egoera, eta etorkizuneko erronkak.

**Ikasturte berezia izango da hau Gomiztegin, hogeita bosgarrena. Atzera begira jartzeko une egokia. Zein izan da eskolaren ekarpena urte hauetan?**

Duela 30 urte gainbeheran zetorren artzaintza sektorea profesionalizatzen eta prestigiatzen lagundu du, eta hori funtsezkoa da gazteak erakartzeko. Gazta bezalako elikagai bat balioan jartzen lagundu dugu, eta gizartearen aurrean ageriko jarri dugu Euskal Herrian beharrezkoak direla artzainak eta ardiak.

**Ez dakit hemen behar beste baloratzen ote den artzain eskola egiten ari den lana, baina hemendik kanpora erreferente bihurtu da, ezta?**

Hasteko, esan nahi nuke guk asko ikasi dugula Ipar Euskal Herriko eskoletatik, baina egia da, bai, estatu mailan erreferente bihurtu gara eta Espainiako sei erkidegotan ari direla gurean oinarritutako ereduak ezarri nahian. Atzerritik ere (Txile, Italia, Suitza, Portugal...) jende askok erakutsi du interesa hemen egiten dugun lanaren inguruan. Eta hemen bertan



Aurtengo ikasleetatik 6 bizkaitarrak dira, 4 nafarrak, 2 arabarrak, eta gipuzkoar, kataluniar eta madrildar bana; 3 neska eta 12 mutil.

ere, ez dut uste gaur egun inork zalantzan jartzen duenik formazioa ezinbestekoa dela sektorearen etorkizuna bermatzeko.

**Orain arte 297 ikaslek osatu dute formazioa Gomiztegin, eta erdiek baino gehiagok dute artalde propioa. Zein da balorazioa?**

Ona. Gure ikasleen batz besteko adina 27 urtekoa da, eta datuek erakusten dute hona datorren jendea ez dela denbora pasa etortzen. Erdiek baino gehiagok erabakitzen dute etxeko artaldea hobetzea eta modernizatzea; beste batzuk langile bihurtzen dira esplotazio ezberdinetan,

eta beste hainbatek artalde propioa jartzea erabakitzen dute. Elkarte eta zuzendaritza postuetan diharduten ikasle ohiak ere badaude.

**Ikasle gehienak artzain familiaritako seme-alabak izaten dira. Etxean artalderik ez duen gazte batek izan al dezake etorkizunik?**

Oso zaila da pertsona bakar batekin esplotazioa aurrera ateratzea, zenbait hilabetetan oso lotua izaten baita ofizio hau. Gure ustez nahitaezkoa da 2 edo 3 pertsonako egitura minimo bat, eta eredu horretarantz goaz. Esplotazioetan gero eta gehiago ari dira kontratazioak egiten eta

3 lagunekoen enpresa txikiak sortzen. Bere konplexutasuna dauka, noski, pertsonak gestionatu behar direlako eta gehiago produzitu beharra dagoelako errentagarria izan dadin, baina horretara jo behar dugu bizimodu duina izan nahi badugu.

**Zein da ardiaren sektorearen argazkia gaur egun?**

Erkidego mailan 5.000 etxe daude ardiak dituztenak, eta artzaintzatik bizi direnak 400 bat dira; hauetatik 250 inguruk esnea saltzen dute, eta 150 bat dira gazta ekoizten dutenak.

Artzainen batz besteko





adina nahiko altua da (62 urte) eta, beraz, hurrengo urteetarako erronka da errelebo-kontratuak bideragarri egitea, jubilatzen diren artzainek utzitako zuloak bete ahal izateko. Ez da erraza, baina hor badago espazio bat artzaintzatik bizi nahi duten gazteentzat.

Gainera, azken urteotan eta, bereziki, pandemiaren ondoren, ikusten ari gara gero eta gehiago eskatzen direla bertako elikagaiak, eta beraz, badago merkatu inportante bat. Horretarako, jakina, hiru arlo uztartu behar ditu gaur egungo artzainak: produkzioa, eraldaketa

eta komertzializazioa. Baina gaurko artzain gazteek duten formazio mailarekin gai dira erronka horiei aurre egiteko.

#### **Produktuen dibertsifikazioa ere inportantea da, ezta?**

Bai, azken zortzi urteotan ahalegin berezia egiten ari

#### **» BATIS OTAEGI**

Artzain eskolako zuzendaria

#### **EKARPENA**

**Orain dela 30 urte gainbeheran zegoen artzaintza profesionalizatzen eta prestigiatzen lagundu du Gomiztegiako eskolak**

#### **ARDIEN SEKTOREA**

**Artzainen batz besteko adina 62 urtekoa da, beraz, errelebo-kontratuak bideragarri egitea da datozen urteetarako erronketako bat**

#### **ERRONKAK**

**Berrikuntza pedagogikoan sakondu eta ikasleengan ekintzailetasuna sustatzea dira gure erronkak. Eskualdean martxan jarri asmo den behi-eskolan ere parte hartuko dugu**

gara esnekien dibertsifikazioa bultzatzeko; gazta urdina, gazta freskoa, gaztanbera, kremak... gizarteak eskatzen dituen produktuak dira eta orain arte kanpotik ekartzen genituen.

'Gazta Berri' proiektuaren baitan, elikagaien eraldaketarako behar den formazioa jasotzeko aukera dute ekoizle txikiek, *Leartiker* elikagaien teknologian espezializatutako

zentroaren bitartez.

**Ardiei buruz berba egiten ari gara, baina ahuntzen inguruko formazioa ere ematen duzue, ezta ?**

Bai duela zortzi urte hasi ginen ahuntzaren inguruan lanean. Badira zenbat leku (baso inguruak) ardiarentzat egokiak ez direnak, baina ahuntzekin lan ona egin daiteke, modu kontrolatuan ipiniz gero. Eta ikusten dugu hor ere badagoela lan egiteko aukera. *Ahuntzai-Euskal Ahuntz Esne Elkarte*a ere sortu da, eta horiek ere ari dira formazio espezifikoa eskatzen.

**Zein dira Gomiztegiako eskolaren erronka nagusiak etorkizunera begira?**

Berrikuntza pedagogikoan sakontzea da gure erronka nagusia. Ahalik eta formazio onena ematea ardietatik edo ahuntzetatik bizi nahi dutenei. Aurtun, adibidez, 6 hilabetetik 9ra luzatu dugu ikasturtea, ahalik eta formazio osatuena emateko.

Azken urteetan Mondragon Taldeko Saiolan-ekin ere ari gara lanean gure ikasleen artean ekintzailetasuna sustatzeko asmoz, eta arlo horretan ere sakondu nahi dugu.

Bestalde, Gomiztegiako eredu jarraituz laster Debagoiena eskualdean martxan jarri nahi den behi-eskolan ere parte hartuko dugu.

Eta erronka horiei guztiei aurre egiteko eskolako lantaldea berritzeko prozesuan ere murgilduta gaude. Egiari zor, ilusioz beteriko momentua bizi dugu Gomiztegin. ■

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

# Oñatiko eskola-mugikortasunaren bigarren neurketaren emaitzak:

## BIDE ONETIK BAGABILTZ!

Oñatiko eskola-mugikortasuna gero eta aktiboagoa da, jasangarriagoa, autonomoagoa eta autoarekiko mendekotasuna gutxitu egin da. Hori erakusten dute 20-21 ikasturtean egindako neurketen emaitzek. Bagabiltz Eskolako Bidea Udaleko hezkuntza sailak eta ikastetxeek elkarlanean sustatutako egitasmoaren baitan, haurren mugitzeko ohituren bigarren neurketa egin da, 2016an egin zen lehena. Horrekin batera ikastetxeetako irakasle eta langileen lanerako mugikortasuna neurtu da lehen aldiz. Azkenik, espazio publikoari buruzko hausnarketa egin dute ikasleek eta emozio eta pertzepzio positiboak eragiten dituzten lekuak zehaztu dituzte.



2020-21 ikasturtean hainbat jarduera garatu dira mugikortasunaren aspektu desberdinak neurtzeko, kuantitatiboak nahiz kualitatiboak. Neurketen emaitzen argitan orain arte egindako bidearen balorazioa eta etorkizunera begira jarraitu beharreko bidea zehaztuko dira.

### IKASLEEN MUGIKORTASUNAREN ETA AUTONOMIA MAILAREN GARAPENA (2.016-2.021):

Lehen hezkuntzako haurrek eskolara joateko duten **autonomia-maila 2021 urtean nabarmen hazi da** 2016ko mugikortasun-inkestan jasotako datuekin alderatuta. **2016an eskolara doan ibilbidea bakarrik edo lagunekin modu autonomoan egiten zuten ikasleak %48 ziren. 2021ean %60tik gora dira. 12 puntu igo da beraz 5 urtean.** Nabarmen hazi da ikaskideekin elkartzeko ohitura. Lehen Hezkuntzan mutilek neskek baino autonomia handiagoa dute joan-etorrietan, kontuan izateko gaia.

**Mugikortasun ohiturei dagokionez** aukeratutako garraibideak egunero egiten den jarduera fisikoa baldintzatzen du. Gaur egun, **ikasleen %67,7 modu aktiboan** mugitzen da eskolara (oinez, patinetean edo bizikletaz). 2016. urtean, lehen hezkuntzako ikasleen ia %38 motordun ibilgailuetan garraiatuak ziren; 2021an, berriz, %32,3. Autobusaren erabilerak pixka bat gora egin du, eta autoaren erabilerak nabarmen egin du behera: 2016ko %32,2tik 2021ko %24,2ra. Jaitsiera hau esanguratsua da, eta bi arrazoigatik ematen da: batetik, lehen autoan zebiltzanak orain patinetez eta oinez ibiltzea -azken ikasturtean eskola-inguruneetan trafikoa baretzeak lagundu egin du- eta bestetik, autobusa erabiltzea, Herribusa barne.

Bigarren Hezkuntzan joera berari eusten zaio. Ikasleak oso aktiboak dira joan-etorrietan (% 88,7) eta gehiago erabiltzen dituzte garraibide jasangarriak (% 90,2). Autoa % 9,8k baino ez du erabiltzen (2016an % 10,1ek).



**Oñatiko eskola-mugikortasuna gero eta aktiboagoa da, jasangarriagoa, autonomoagoa eta autoarekiko mendekotasuna gutxitu egin da**



» LEHEN HEZKUNTZAKO HAURREN ARTEAN 12 PUNTU IGO DA (%48TIK %6ORA) ESKOLARAKO BIDEA BAKARRIK EDO LAGUNEKIN MODU AUTONOMOAN EGITEN DUEN IKASLE KOPURUA

### IRAKASLE ETA LANGILEEN LANEKO MUGIKORTASUNA

Ikastetxeetako irakasle eta langileen mugikortasuna nolakoa den jakitea ere interesgarria da, eta lehen neurketa burutu da.

Autoaren erabilera da nagusiena (joan-etorrien %50,4) eta zerikusi zuzena du bizilekua eta ikastetxearen arteko distantziarekin. Joan-etorri hauek autoa partekatuz egiten dira hein baten (%9,5) eta hau sustatzea interesgarria da. Bestalde, oso pozgarria da joan-etorrien %47 modu ez-motorizatuetan ematen dela (%38 oinez, %9 bizikletaz).

Mugikortasun ohituren "argazkia"

atera da, honek hausnarketarako bidea zabaltzen du eta mugikortasun jasangarriago baten alde ekintzaren bat sustatzeko baliagarria izan daiteke.

### EMOZIO ETA PERTZEPZIO POSITIBOAK KALEETAN; LAGUNEKIN ELKARTZEAREN GARRANTZIA

Lehen Hezkuntzako ikasleen partaidetzarekin eta eskolarako ibilbidea oinarritzat hartuta, Oñatiko kaleen balorazio bat egin da, pertzepzio eta emozio positiboak non bizitzen diren jakiteko; umeentzat zeintzuk diren kalitatezko espazioak, non sentitzen diren gustura eta zergatia az-

tertu da. Zertarako? Ikasleek espazioaren erabilerrari buruzko gogoetan inplikatzeko eta umeen ikuspuntutik kalitatezko espazioak zeintzuk diren kontuan hartu eta zaintzeko.

Bidebarrieta, San Lorentzoko tunela, Foruen enparantza, Santa Marina, Santa Ana eta Kale zaharra izan dira haurren gustukoena. Ezaugarri antzerakoak dituzte aipatutakoek: oinezkoen guneetan daude edo espaloi zabalak dituzte, trafiko gutxi edo ibilgailurik gabeko guneak dira eta aterpea dago leku askotan eta zuhaitzak eta berdeguneak beste batzuetan.

Emozio positiboak dagokionez, aipagarrienak poztasuna (%45,4), lasaitasuna (%28,1) eta seguru sentitzea (%10,9) dira. Arrazoi nagusia lagunekin topo egitea da, bizipena: ikasleen ia erdiaren esanetan, Oñatiko leku eta txokoak bertan lagunekin elkartzeko direlako eta jolasteko egokiak iruditzen zaizkielako dituzte gogoko. Baloratzen diren beste aspektu batzuk leku lasaiak, zuhaitzak egotea eta oinezkoek lehentasuna duten lekuak izatea dira (autorik ez egotea edo espaloi zabalak izatea). ■




### EMOZIO ETA PERTZEPZIO POSITIBOEN MAPA

Emapic aplikazioan erreferentziatu dira leku gustukoena


### BIZIKLETA ETA PATINETE APARKALEKUAK

Eskolara modu aktiboan joateko eta bereziki bizikleta eta patineteen erabilerraren gorakadari erantzuteko helburuarekin, ikastetxe inguruetan bizikleta eta patinete azpiegiturak berriki hartu dira 20-21 ikasturtean. Neurri horiek jarraipena izango dute 21-22 ikasturtean.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA  
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP  
OINATI@COINBROKER.EUS



# GURE KATONA

Oñatin euskaraz bizitzeko oinarrizko hiztegia eta gramatika plazaratu du Roberto Altuna euskaltegiko irakasleak

**UDALAREN WEBGUNEAN DAGO ESKURAGAI**



Oñatiko euskara edo batua bakarrik erabiltzen duten herritarren artean sortu ohi diren komunikazio arazoak gainditu eta elkarren arteko zubiak eraikitzeko asmoa duen lantxoia plazaratu du Udal Euskaltegiko zuzendari Roberto Altunak. 'Gure katona. Herrikoa, gaztelania eta batua bat eginda' da lanaren izenburua eta udalaren webgunean dago eskuragai.

**Bati baino gehiagori arrotza gertatuko zaio katona hitza. Zer esan gura du?**

Gaurko gazteentzat ezezaguna izango da *Katona* hitza, baina 60 urtetik gorako jendeak ondo daki zer den. Garai batean, eskolako lehen urteetan erabiltzen zen liburua zen *katona*, eta bertan batzen ziren ikasgai ezberdinak: gramatika, geografia, historia, matematikak... Horixe da *katona*.

**Zer dela eta erabaki duzu orain 'Gure katona' plazaratzea?**

Behar bati erantzuteko sortu den lana dela esango nuke. Oñatin, gaur egun, kalean entzuten diren 10 elkarrizketatik ia 7 euskaraz dira, eta horietan Oñatiko hizkera entzuten da gehien-gehienetan. Baina herriko euskara hori arrotz gertatzen zaio euskara ikasten hasi berri denari. Beste zenbaiti, aldiz, euskara batua egiten zaio arrotz, herriko hizkeran eroso eta erraz moldatu arren. Eta badira euskaldun 'kultuak' ere, nola-bait esatearren, euskara batua hobesten dutenak eta herrikoa bigarren mailakotzat dutenak. Eta horrek zer dakar? Inkomunikazioa.

Adibide argigarri bat ipiniko

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**

Oñati



dizut. laz, etxez-etxeko laguntza zerbitzuan ziharduen Daniela izeneko koloniar bat izan nuen ikasle, zerotik hasi zena. Asteko egunak eta ofizioak ikasita, joan zen lana egiten zuen etxera, 90 urteko euskaldun zahar baten etxera, eta esan zion: "*Martin, asteazkena medikua*"; eta gizonak erantzun, "*Ez ez ez, nik eguastean dakot medikua*", eta besteak "*¿Qué me estás diciendo?*". Alegia, komunikatu ezinik geratu ziren oinarrizko esaldi horretan.

Horregatik, errealitate horiek guztiak kontuan hartu eta batetik besterako zubiak eraiki behar ditugula uste dut, eta helburu horrekin sortu dugu *Gure Katona*, Oñatiko euskara, batua eta gaztelaniaren arteko zubiak eraikitzeke asmoz.

### Zer jaso duzu Gure Katonean?

Alde batetik hiztegia; Oñatin euskaraz bizitzen lagunduko diguten oinarri-oinarrizko hainbat berba: astegunak, animaliak, gorputz atalak, etxeko tresnak, aisialdia, lanbideak, jantziak... Euskara batuaren aldean desberdin edo fonetika aldetik beste modu batera ahoskatzen diren hitzak jaso ditugu eta hiru zutabetan ipini parez pare: Oñatiko eran, euskara batuan eta gaztelaniaz.

Gramatika mailan, Oñatiko euskararen bereizgarri nagusiak jaso ditugu: bustidura (*harrixa, mendixa...*), aditz-izenak (*asmau-asmaitten, apurtu-apurketan, galdu-galtzeia...*), atzizkiak (*mahastuixa, produziñua, soldadutzaia...*), deklinabidea (*neskandako, neskiagaz...*), aditz erabilienak (*xat, gotsan, baneu, nittuke, neike...*) eta sintaxi



Goiko irudiko QR kodea eskaneatuta ikusi ahal izango dugu 'Gure Katona' lana. Udalaren webgunean ere kontsultatu eta deskargatzeko aukera dago: [www.oñati.eus/udala/argitalepenak/euskara](http://www.oñati.eus/udala/argitalepenak/euskara)

mailako egitura eta lokailuak (*ahalaz bat, ete, lakotxia, lain...*).

Horrez gain, hainbat esaera eta esamolde ere jaso ditut, sarri erabiltzen direnak eguneroko jardunean, baina, gehienetan gaztelaniaz esaten ditugunak, baita euskaldun peto-petoek ere (*A caballo regalado..., ¡Cuando mucho, cuando nada!, La sarna con gusto..., coger manía, fruncir*

### ZUBIAK ERAIKI

» Oñatin 10 elkarriketatatik ia 7 euskaraz izaten dira, gehienak oñatieraz. Baina herriko euskara hori arrotz gertatzen zaio euskara ikasten hasi berri denari. Beste zenbaiti, aldiz, euskara batua egiten zaio arrotz, herriko hizkeran eroso eta erraz modatu arren. Beraz, zubiak eraiki behar ditugu elkarren artean.

### ONARRIZKOA

» Oñatin euskaraz bizitzeko oinarrizko hiztegia eta gramatika, eta gehien erabiltzen diren esamoldeak jasotzen ditu Katonak. Oñatin euskaraz bizi gura duen guztiak ezagutu eta jakin beharko luke bertan jasotzen dena.

*el ceño*). Eta amaitzeko lau haur kanta eta bibliografia jaso ditugu.

Denera, 35 orrialdeko lana da. Ez dugu lan mardula egin gura izan, zerbait erabilgarria baizik, praktikoa, eta horregatik edukia mugatu egin behar izan dugu.

### Norentzat izan daiteke erabilgarria Gure Katona?

Zirkulazio arauak Jaramako zirkuitura doazen pilotuentzat solik dira? Ez, ezta? Errepidera ateratzen diren gidari eta oinezko guztiak ezagutu behar dituzte oinarrizko arauak. Eta honekin ere beste hainbeste esan liteke. Oñatin euskaraz bizitzeko oinarrizko hiztegia eta gramatika jasotzen ditu Katonak eta, beraz, Oñatin euskaraz bizi gura duten guztiak ezagutu eta jakin beharko lukete bertan jasotzen dena. Oinarrizkoa den neurrian, den-denentzat da.

Eskoletako ikasleekin (adin bakoitzera egokituta) jorrazteko egokia dela uste dut, eta baita irakasleentzat ere; zer esanik ez kanpotik datozen irakasleentzat. Baita kazetari eta idazleentzat ere. Baina, esan bezala, Oñatin euskaraz bizi gura duten guztientzako oinarri-oinarrizko tresna da.

### Non eskuratu daiteke?

Oraingoz ez dugu paperean aterako. Gura duenak Oñatiko udalaren webgunean ([www.oñati.eus/udala/argitalpenak](http://www.oñati.eus/udala/argitalpenak)) dauka eskuragai, kontsultatzeko eta, gura bada, deskargatzeko. Artikulu honetako QR kodeak ere bertara eramaten du.

Horrez gain, herriko ikastetxe guztietara bidali dugu, eskura izan dezaten eta egoki ikusten duten moduan erabili. ■

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

# urriaren erdialdera jarriko da martxan AUZOKO

Jatorri ezberdineko pertsonak euskarara hurbiltzea helburu duen programa da. Miren Zubia izango da dinamizatzailea.

Iazko ikasturte amaieran hasi zen Miren Zubia (Oñati, 1997) **AUZOKO** programako dinamizatzaile lanetan, eta ikasturte berrian ere zeregin horretan jarraituko du, Txatxilipurdi elkartearen babesean, euskaratik urrun dauden herritarrei euskarara hurbiltzeko bidea egiten lagunduz. Horixe baita, hain zuzen ere, **Auzoko** programaren helburua: jatorri ezberdinetako herritarrak euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea, pertsona horien hizkuntzak eta kultur aniztasuna aintzat hartuz eta balioan jarritz.

Helburu horiek lortu ahal izateko, bi hanka edo osagai nagusi ditu **Auzoko** programak, Zubiak azaldu digun moduan; "alde batetik **AUZOKIDEAK** egoten dira (euskarara hurbildu nahi duten herritarrak; normalean kanpotik etorritako pertsonak izaten dira, baina bertakoak ere izan daitezke), eta bestetik **AUZOTARRAK** (euskal hiztunak). Eta astean behin elkartzen dira, ekintza ludikoen bidez elkarren arteko zubiak eraiki eta harreman sareak sortzeko asmoz, euskara ardatz hartuta betiere".



## EUSKAL HIZTUNAK ANIMATU

Gero eta gehiago dira etorkinak gure artean eta, beraz, **Auzoko** bezalako ekimenak ere gero eta beharrezkoagoak dira gure herrira iritsi eta euskarara hurbiltzea erabakitzen duten herritarrei hizkuntza-harrera egiteko.

Eta euskararako bidea egiten laguntzeko, euskal hiztunen parte hartzea ere oso garrantzitsua da eta, horregatik, Zubiak animatu egin nahi ditu herritarrak (17 urtetik gorakoak) **Auzokon** parte hartzera **Auzotar** bezala. "Ez du dedikazio handirik

eskatzen (astean ordubete), eta euskarara gerturatzeko ahalegina egin nahi duten pertsonentzat oso garrantzitsua da harreman sareak handitzea. Euskal hiztunik gabe **Auzokok** galdu egiten du bere zentzua".

Gainera, euskal hiztunentzat ere oso aberasgarria dela uste du Zubiak. "Bai, esperientziagatik esan dezaket, eman bakarrik ez, jaso ere asko jasotzen dela **Auzokon**. Pertsonak ez ezik, hizkuntza eta kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du, eta hori benetako altxorra da. Askok aberasten zaitu". Urriaren erdialdera jarriko da martxan **Auzokoren** ikasturte berria, bederatzigarrena, eta zabalik dago izen-ematea **Auzokide** edo **Auzotar** bezala parte hartzeko. Animatu!

**AUZOKOn parte hartu nahi baduzu:**  
**onatikoauzoko@gmail.com / 688651205**



» Euskal hiztunak ere animatu egin nahi ditut parte hartzera, bestela Auzokok galdu egiten baitu bere zentzua

Gezalaga  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

## Hainbat auzo-bidetan konponketa eta asfaltatze lanak egingo ditu Udalak

Udal mailako auzo-alkateen foroan adostutakoaren arabera, premia gehien duten zazpi auzo-bidetan konponketa lanak egingo dira aurten: **Larraña** auzoko *Antzuolas Beiti*, *Antzuelas Etxebarri* eta *Antzuelas Goiti* baserrietarako bideak konponduko dira zati ezberdinetan; **Uribarrin** *Erostegi Txiki* baserriko bidea; **Murgia** auzoan *Biain Urruti* eta *Biain* baserrien artean areka berria egingo da eta *Aranerrika* baserri parean areka bidez bidea zabaldu eta euri urak bideratuko dira; **Olabarrietan** *Auntzola* baserriko bidean ere euri urak batuko dira errekarara bideratzeko. Horiez gain, hainbat asfaltatze lan egingo dira **Torreauzon**, *Munazategi* eta *Azkonitza* artean, **Olabarrietan**, *Irubideta* eta *Lizarretxe* artean, eta **Murgian**. Udalak *Escavaciones Arrasate* enpresari esleitu dizkio lanak 123 mila eurotan.



## Edukiontzi berriak, olio birziklatzeko

Argazkikoa bezalako edukiontzi laranja berriak ipini ditu Mankomunitateak etxeko olio erabilia batzeko. Gainera bilketa puntu berriak ere egokituko dira; orain arte olio batzeko 7 edukiontzi zeuden, eta orain beste 6 ipiniko dituzte. Edukiontzi berrietan edozein motatako ontzi itxietan (beirazkoak, plastikozkoak, tetra-brikak...) bota daiteke olio, eta ez da nahitaz ontzi berdea erabili behar. Edukiontzi berriek ez dute ontzi hutsik bueltatzen.



## Hilerriko arrapala berria ia prest

Kanposantuko gune berriko irisgarritasuna bermatzeko arrapala bat eraikitzea erabaki du Udalak. Orain dela zazpi urte eskailera-igogailua jarri zen, baina hainbat arazo eta matxura izan ditu eta, azkenik, arrapala finko bat jartzea erabaki da. Argazkian ikusten den moduan arrapalari eutsiko dion egitura prest dago jada, eta urriaren erdialderako amaituta egongo da. Udal brigadak egin du obra zibila, eta Caravanas Oñate enpresari esleitu zaio arrapala jartzeko lana 26.680 eurotan.



## Datu hobeak turismoan, baina pandemia aurreko egoerara iritsi barik

Uztaila-abuztuan Oñatiko Turismo Bulegotik iaz baino 786 bisitari gehiago pasa badira ere, pandemia aurreko datuen %60ra baino ez da iritsi turista kopurua. Turismo bulegoak eskaini dituen bisita gidatuetan 755 lagunek parte hartu dute, 2019ko kopuruaren %43. 'Gernika' koadroaren txokolatezko erreplika 3.455 pertsonen ikusi zuten.

Arrikruzeko Koba eta Txokola-teixa gehiago hurbildu dira 2019ko datuetara, eta azpimarratzekoa da, abuztuan inoizko bisitari kopuru handiena (3.193) izan dutela Arrikruzten. Herriko ostatuaren okupazio maila uste baino hobea izan da, bisitarien gaualdi kopurua 2-3tik 5-7ra igo delarik, eta, oro har, osasun murrizketak eta bidaiatzeko mugak kontuan hartuz, Oñatiko turismo sektorearen balantzea ona izan da.

## 'Landa emakumeak gara' sormen lehiaketa

Gipuzkoako landa eremuko emakumeen arteko elkar-ezagutza eta saretea bultzatzeko asmoz, 'Landa Emakumeak Gara' sormen lehiaketa antolatu du Gipuzkoako Landa Garapenerako Elkarteak (Landaola). 'Landa eremuko emakumeak eta bizikidetzatza' gaia ardatz hartuta, euskarri grafiko bat (argazki, marrazki, irudi, collage...) eta honekin loturiko hausnarketa-testu txiki bat aurkeztu behar dira, urriaren 15a baino lehen, Landaolaren webgunearen bidez. Hiru kategoria bereiziko dira (25 urtetik beherakoa, 25-55 urte artekoa, eta 55etik gorakoa) eta kategoria bakoitzean 600€, 450€ eta 300€-ko sariak banatuko dira.

**JUANJE MARGOAK**  
T. 627 818 247

**amaia igartua**  
arkitektura  
IGOGAILUA ETA FATXADAN ISOLATZAILEA JARRI NAHI?  
RENOVE DIRU LAGUNTZAK MARTXAN  
tel: 677 31 20 57 email: amaigartua@gmail.com

# ELKANORI

buruzko informazio  
berria eman du  
argitara Azpiazuk


*Juan Sebastian Elkano: ingurua, ibilbidea, epika* lana plazaratu du Javier Elorzarekin batera



Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen eskutik *Juan Sebastian Elkano: ingurua, ibilbidea, epika* ikerketa lana plazaratu dute Jose Antonio Azpiazu oñatiarrak eta Javier Elorza legazpiarak. Itsas-gizon getariarrak munduari lehen aldiz bira eman zioneko espedizioaren (1519-1522) V. mendeurrena ospatzen ari garen honetan hainbat liburu eta bestelako dokumentu argitaratu dira ekintza gogoangarri haren inguruan, baina Azpiazu eta Elorzaren lan berri hau ez da zentratzen zirkumnabigazioan, baizik eta balentria hura posible egin zuten faktoreetan. Oñati eta Legazpiko ikerlariak iturriak miatu dituzte, eta hainbat artxibotako (Indietako Agiritegi Nagusia, Simancasko Artxibo Nagusia, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa...) agirietan oinarrituta Elkanori buruzko informazio ezezaguna eman dute argitara, orain arte arin samar aipatu izan diren zenbait gairen inguruko zehaztapenekin batera.

Hasteko, Elkano familiaren estatus sozial eta ekonomikoa, eta hainbat belaunalditan itsas-merkataritzarekin izan zuten harremanaren berri ematen da liburuan.

Magallanes portugaldarra buru zuen espedizioan abiatu ziren bost itsasontzien eta, bereziki, *Victoria* karabelaren (itzuli zen bakarra) tamainari buruzko hainbat xehetasun ere jaso dituzte. Egileen ustez, esan ohi dena baino askoz txikiagoa zen ontzi



Munduari bira eman zion *Victoria* karabelaren tamainari buruzko hainbat xehetasun jaso dituzte. Ikerlarien ustez, esan izan dena baino askoz txikiagoa zen ontzi hura.



Austrian National Libraryren lagapenari esker, Euskal Herriko kostaldea irudikatzen duten XVI. mendeko mapa eta plano ikusgarriak ere ikus daitezke Azpiazu eta Elorzaren lanean. Argazkian Getariako.

**EGUR-LAN**  
 AROZTEGIA  
 LIMABAR S.A.L.  
 BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
 TEL. FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
 www.egur-lan.es

**smk**  
 san miguel kooperatiba  
 943 781 217  
 kale barria 8 - 20560 oñati  
 www.sanmiguel.coop

## Interneten eskuragarri



Liburu formatuan ale gutxi batzuk baino ez dituzte argitaratu, baina irakurri nahi duenak Interneten dauka dohainik deskargatzeko aukera, euskaraz nahiz gazteleraz, <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/BIB/article/view/3421> helbidean.

hura, eta hori hala bada, "goresgarriagoa da espedizioaren arrakasta, horrek esan nahi baitu hemezortzi gizonak oskoltxo ahul eta hondatu batean lortu zutela Sanlucarrera iristea".

Bost itsasontzi haietako hiru (eta agian lau) Euskal Herrian eginak ziren, eta hipotesi modura, *Victoria* karabela Gipuzkoako kostaldean eraikia izan zela uste dute egileek, orduko agiri eta datuetan oinarrituta.

Ontziolek ez ezik, armagintzak ere garrantzia handia izan zuen garai hartan Euskal Herrian, eta munduari biria eman zion espedizio haren arrakastarako funtsezkoak izan ziren arma astunetako asko ere (bonbardak, kanoi handi eta txikiak...) Gipuzkoako barrualdean nahiz kostaldean eginak izan zirela pentsatzeko bidea ematen duten hainbat datu ere bildu dituzte.

Magallaesen espedizioan abiatu ziren euskal marinelei (250 lagunetik 35) buruzko hainbat xehetasun ere azaltzen dira, bai eta bakoitzak jaso zuen ordainsari eta pribilegioena ere.

Liburuaren azken atalean, Elkano bera buru zela Moluketara egin zen bigarren espedizioaren berri ematen da. Bertan zendu zen itsas gizon getariarra, bere bi anairekin batera.

Lan interesgarria, zinez, Azpiatzuk eta Elorzak plazaratu dutena. Liburu formatuan, paperean, oso ale gutxi kaleratu dituzte, baina irakurri nahi izanez gero, euskaraz eta gazteleraz, interneten dago dohainik deskargatzeko moduan. Gainera, *Austrian National Library*ri esker, garai hartan egindako hainbat mapa eta plano ikusgarri ere jaso dituzte argitalpenean. ■

# IBAI LAGUN

## IX. JARDUNALDIAK urriaren 5etik 17ra

IX. IBAI LAGUN jardunaldiak antolatu ditu udaleko Ingurumen sailak Natur Eskolarekin elkarlanean. Gure erreken eta gordetzen duten bioaniztasunaren garrantzia ezaugutzera ematea, eta hauen babesarekiko sentsibilizazioa herritarren artean piztea da jardunaldion helburua. Horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen asteetarako.



### URRIAK 5, ASTEARTEA, KULTUR ETXEAN (19:30)

**Dokumentala:** 'Las voces del agua'. Zuzendariak: J.A. Rodríguez eta Ramón Campoamor.

### URRIAK 6, ASTEAZKENA, KULTUR ETXEAN (19:30)

**Hitzaldia:** 'Pirinioetako glaziarrek galzorian'. Hizlaria: Eñaut Izagirre, geografo eta glaziologo. Pirinioetako glaziarrek, Europako hegoaldean egonik, baldintza klimatikoaren aldaketekiko oso sentiberak dira. Horregatik, garrantzia handia dute klima aldaketaren geo-adierazle gisa, Pirinioetako 'termometro' aldakor modura. Iraganean mendikatea landu zuten glaziarrek desgertzeko zorian daude gaur egun. Beraz, hona hitzaldiak proposatzen duen bidaiaria: nondik gator eta nora goaz?



Aneto

### URRIAK 16, LARUNBATA, SAN MARTINGO PARKINEAN (9:00)

**Mendi-ibilaldi gidatua:** 'Aitzondoko urak eta elur-zulua'.

### URRIAK 17, IGANDEA, FORUEN PLAZAN (10:00)

**Erreka garbiketa.** Errekan ibiltzeko oinetako egokiak (katiuskak edo oinetako zaharrak) eta eskularruak eramatea gomendatzen da.



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## OHAR ETA DEIALDIAK

### 'BERTAKOAK' APARKATZEKO TXARTELA 2022rako alta eta bajak tramitatzeko epea urriaren 15etik azaroaren 15era irekiko da



Datorren urtera begira 'BERTAKOAK' aparkatzeko txartela eskatu edo ezeztatu nahi duten herritarrek 30 eguneko epea (urriaren 15etik azaroaren 15era) izango dute, HAZ bulegoan. Aurten 'Bertakoak' txartela duten herritarrei automatikoki berrituko zaie, kontrakorik adierazi ezean. Jarraian adierazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuen jabeek eskuratu ahal izango dute 'Bertakoak' txartela: **Zona 5 Gunea (AITA MORTARA):** Kale Zaharra 1-29 eta 2-48, San Anton, Aita Madina, Aita Mortara, Foruen plaza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, Maiatzaren 1. plaza, Bakardadeko Ama eta Zumeltzegi kalea. **Zona 6 Gunea (BIDEBARRIETA):** Bidebarrieta kalea, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria, Errementari, Ramon Irizar eta Aozaratza.

### ANTXINTXIKA TRIATLOI EGOKITUKO SAILAREN ZOZKETA



Antxintxika Triatloi Egokituko Sailak bazkideak saritzeko bigarren zozketa egin du eta Estebe Olaortua antzuolarra izan da saritua, **Lacturale** produktuen sorta eta motxila eder banarekin. Gogoratu, iaz eratu zela Antxintxika Triatloi Egokituko saila, arazo fisiko edo psikikoak dituzten gazte eta helduei kirola egiteko aukera eskaintzeko asmoz. Beraien jarduna aurrera eraman ahal izateko lagundu nahi izanez gero, BAZKIDE (30€ urtean) edo LAGUN (15€ urtean) egiteko aukera dago. Bazkide egiten direnen artean produktu ezberdinak zozketa-tuko dituzte hiruhilabetero, eta beste zenbait abantaila (deskontuak, urtekaria...) izango dituzte. Baterako zein besterako, bidali mezua txoske@yahoo.es helbidera.

### GARY BAÑOSEN OMENEZKO MONOLITOA ALOÑAN

Zazpi hilabete dira Gary Baños zendu zela, eta haren oroitzapenak bizirik dirau oraindik herritar askorengan. Hura gogoratzeko irailaren 25ean ezarri zen monolitoa horren erakusle. Aloñako maldetan galdu zuen bizia Movistar taldean ziharduen oñatiar ezagunak zorigaitoko istripu batean, eta paraje eder eta lasai horretan bertan jarri dute oroitarria eta adarra, haren osaba nafar batek egina, inguru hartara hurbiltzen den orok Garyren omenez jo dezan.

Pago eta Artia bana landatuz, aureskua dantzatuz, bertso batzuk abestuz eta talde argazkia eginaz borobildu zuten Garyren kuadrillakoek eta familiak, antolatutako ekitaldi hunkigarri eta berezia.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)



## Udazkenaren iragarle

Urtero bezala, urria iristearekin batera, ehunka hegaztik zeharkatuko dituzte Oñatiko zeruak hegoalderako bidean. Pagausoa da, izan ere, herritar askorentzat udazkenaren etorrera iragarri eta irudikatzen duen hegaztia, eta asko izango dira aurten ere uso banden hegaldiari begira egongo diren ehiztari eta kaleko herritarrak.



YURA PEREZ

## KULTUR ETXEKO ESKULAN IKASTAROAK

Pintura, eskulan dekoratiboak, patchwork... Hainbat ikastaro eta tailer antolatuko ditu aurten ere udaleko kultura sailak. **Urriaren 13tik 20ra** irekiko da izen-ematea.



## SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOA

Elikadura osasungarria eta sukaldaritza makrobiotikoko ikastaroen 12. edizioa jarriko da martxan urriaren 23an. Informazioa eta izen-ematea: 658 719 089.



## URRIKO IKASTARO BEREZIAK



### PULL-UP

- 6 plaza
- Urriak 23
- 10:00-13:00\*
- 45€

### 5P METODOA

- 6 plaza ▪
- Urriak 16 ▪
- 9:30-12:00\* ▪
- 45€ ▪

\* Coffe break bat eskainiko da.



San lorentzo 54  
T. 943 53 32 99 | M. 652 712 123  
eratu@euskalnet.net

[www.eratufisioterapia.com](http://www.eratufisioterapia.com)

Gorputzaren oreka eta indarra lantzeko teknika, progresioa eta entrenatzeko errutina sinpleak.

▪ **Onurak**

Indarra landu eta gorputzaren oreka kontrolatzen ikasi.



Sabelaldea eta zoru pelbikoa lantzeko ariketak. Ikasi exekuzio egokia duten ariketa ezberdinak.

▪ **Onurak**

Sabelaldea aktibatu, zoru pelbikoa landu, gorputzeko postura hobetu.

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## TXALOKA UDAL LUDOTEKA BERRIKUNTZA ASKOREKIN BUELTAN

Ikasturte berriari hasiera eman diogu Ludotekan. 2021-2022 ikasturteak iazkoak baino itxura malguagoa dauka eta gure aisialdia "normaltasun" zaharraren antzekoagoa izango dela dirudi. Gu hezitzaile lantalde berriarekin oso gogotsu gaude.

Txaloka Ludoteka martxan da Irailaz geroztik eta herrian zehar izaera eta adin anitzerako ekintza bereziak antolatu genituen. Arrakastatsua izan ziren eta jada ate irekian tartean gaude. Arratsaldero 16:45etatik 19:45etara zuen zain egongo gara.

Aurten ere proiektu ezberdinak ditugu esku artean. Batetik, pedagogia berdean murgiltzen joateko, ikasturte amaieran zintzilik gelditu zitzaigun Ortu-Lorategia lantzen hasiko gara. Horretarako, prest ditugu jada bankadak ludoteka osteko gunean eta orain lurra prestatu eta udazkenean sartzeko aproposak diren landareak landatu eta zainduko ditugu. Proiektuko bidelagun izateko Ortu zabal elkartekoei ere laguntza eskatuko diegu, beraien esperientzia eta jakintza gurekin partekatzeko aukera baldin badago, askoz aberatsagoa izango baita.

Behin Ortu-Lorategia martxan dugula, Mirari Sagarazarekin elkarlanean bertan dagoen argindarraren etxolan mural bat egin nahi dugu, parte hartze bidez. Iaz Ludoteka barruan egindako mural zoragarriak ikusita, kanpo espazioa ere dotore dotore utziko dugu. Jakina guzti hau egunerokotasunean lantzeaz gain, herrira irekitako egunak izango ditugu, ludotekako bazkide zein herriko edozein familia gonbidatuta zaudete. Joango gara berri ematen!

Hortaz at, ikasturte honetan astean behin ludotekatik irten eta herriko parke eta naturgune ezberdinetara joango gara. Herria osotasunean eza-gutzeko helburuarekin. Gainera, haizea hartu eta lau paretetatik irtetea denoi datorkigu ondo.

Gainera, 2019-2020 ikasturtean abiatu genituen hileko ekintza berezien ohitura ber hartuko dugu. Ortu-Lorategiaren inaugurazioa, mural margotze kolektiboa, Ipuin kontalariak, magoak, pailazoak, yoga eta beste hamaika ekintza egiteko asmoa daukagu. Proposamenak jasotzen ditugu, beraz hurbildu eta bota!

Herriko hurrekin bizi eta lanean ari diren aisialdi eragile, ikastetxe, guraso talde edo edonorekin hartu emanerako irekita gaude. Besteak beste Gaztelekua eta Txipistin egitasmoekin jarraituko dugu lanean.

Ez dira erronka makalak markatu ditugunak! Apurka- apurka beteko ditugu, gure erritmoan! Ongi etorri!!



### GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRULAGUNTZAK

Gogoratu, 2021eko Gazte emantzipazio dirulaguntzak eskatzeko epearen bukaera urriaren 15ean da.

### GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK

Oñatiko udalerriko irabazi-asmorik gabeko gazte taldeek 2021. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauai dirulaguntzak eskatzeko, edota herriko musika taldeek diskoak edo audiobisualak grabatzeko dirulaguntzak eskatzeko bigarren epealdia urriaren 15ean zabalduko da, eta azaroaren 10a arte egongo da eskatzeko aukera.

### KUBOKO ONGI ETORRI FESTEN DATAK

Urriaren 8an LH3 Txantxiku ikastola.

Urriaren 9an LH3 Elkar Hezi

Urriaren 15ean LH3 Urgain.



**ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LENTIAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



# Barrutik kanpora



**Egilea: Urko Egaña**  
**Doinua: Ausencia, 11A/11B-ra egokituta**  
**Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketan saritutako bertsoak**

**1 -** Gure bihotz-taupaden erritmoa da guk bizi dugunaren ordaina, gu gara gure jarreraren orbaina ta ez da jarrera multzo irmoa. Hausnarketa sakon ta intimoa denoi komeni zaigu, alajaina! Bat eginez burua ta mingaina ea irteten den ahalegin sanoa. Aholku batzuk ematera noa, ematea gauz erreza da baina, izan beharko da hau dena haina aholkuak jasotzeko asmoa.

**2 -** Goiza gaua noiz iritsiko den zai dagoela nor ez da konturatu? Lo denak ere ez du nahi esnatu ez duelako goizaren ezer nahi. Etsaiak lagun ta lagunak etsai, maitatzea nahi dena gorrotatu, gorrotatzen gaituena maitatu ta bizitzak bere horretan darrrai! Ni ez naiz mundua aldatzeko gai ta ez dadila inor deskuidatu! Iragana ezingo dut aldatu, baina zenbaiten etorkizuna bai!

**3 -** Maite dugu gurea dugun xenda, ta besteenari begiratzean, ez dabilzalako gure antzean al daude bide onetik irtenda? Beti besteek badute zer senda norberearekin konparatzean!

Gure egoen hegoak galtzean ezingo ginake hegaz sostenga. Ken dezagun begietako benda behin gure zilborretik askatzean, ikusteko modua aldatzean ikusten dena ere aldatzen da.

**4 -** Erljio, ideologi, diru, kultur-enda edo sexu genero. Zerbait sortzen da ia egunero gauzkana iraganaren gatibu. Akatsak pilatzen ari zaizkigu ta hotza ere dago nahiko bero. Behar denaz hitz-egiteak edo... onura asko emango dizkigu. Besteie entzuten ondo dakigu zer erantzun izan genezan gero... besteen hitzak ulertu ezkeru kontzientziak eskertuko digu!

**5 -** Gure amets ia denak eskura dauzkagula nago oso seguru. Ametsik gehienak gure helburu bilakatu ohi dira segundura. Gero hainbeste presio ta muga ametsak beteko diren aiduru, irrikak eragindako apuru asko datozkigu sarri burura. Sekula eduki ez dugun hura eskuratzea nahi baldin badugu gauz asko egin beharko ditugu sekula egin gabeko modura.

**6.-** Sarri gabiltz hobereenen gerizan ta pizten da inbidiaren sua! Ezin bada hobea, berdintsua izan nahian lehiakorrenen gisan. Ondokoaren lorpenen peskizan nolako amorrazio itsua! Norbetea ez den paradisu nahita ere ezin baitugu jasan. Hau ere jakin behar da bizitzan gertatu baitaiteke pozoitsua: Bekaizia dena zoriontsua aldi berean ezin dela izan.

**7 -** Nork ez du nahi helburuak lortzea norberaren Curriculumerako? Ta nork ez du nahi norberarentzako koskarik-koska gora igotzea? Aurreikuspen faltsuak sortzea gertatzen da normahiren kalterako. Lehenbailen zerbait egin beharko, beti ahalko da ta konpontzea, ez baita ahal inor itotzea ur sakonetan erori delako, baina ez bada azkar aterako kostako da hondoa ez jotzea.

**8 -** Gure ekintzetan koherentzia falta dela da nik dudan ustea, asko kostatzen zaigu bereiztea aniztasunen independentzia. Izan nahi dugunaren esentzia gura baldin badugu sinestea zilegi izango da amestea bakeak behar duen presentzia. Lortuko al dugu kontzientzia garbi batez mundua ikustea? Hauxe da ondorengoei uztea amestu izan dudana herentzia!



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

**Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea**  
**Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza**  
**Merkataritza • Abokatuak**

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
onati@gualbiasesores.com  
-  
[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



Gorbeia Suzien lasterketako helmugan, garaipena ospatzen. © Felix Sánchez

## «Hasiberria naiz, ezin zait asko eskatu. Proba sentsazio onekin amaituta konformatzen naiz»

Udan estreinatu zen Malen Osa mendi lasterketen munduan. Eta lehiatu dituen bi probak nagusitasunez irabazi ditu. Oroeleko igoera abuztuan eta Gorbeia Suzien proba motza pasa den asteburuan. Urriaren 17an Aloñako Igoerako irteera lerroan ikusiko dugu oñatiar gaztea.

**A**genda betea dauka Malen Osa Ansak (Oñati, 2002). Kurtso hasiera, bizileku aldaketa, dantzako entseguak edo futboleko entrenamenduak. Asper- tzeke denbora gutxi. Eta hori gutxi balitz, azkenaldian mendian korrika egiteko zale- tasuna piztu zaio. Elkarriketa eguna lotzea ez da erraza izan, baina hitzordua iritsi orduko lasai eta adeitsu aurkeztu zaigu solasaldira; baita ondorengo argazki sesiora ere.

Kafe eta infusio bana mahai gainean jarri orduko konturatu gara adinez gaztea izan arren, nortasun helduko emakume baten aurrean jarri garela. Kirol kontuez gain, 18 urteko gazte baten bizitza urte- betean nola aldatu den azaldu baitigu.

**Abuztuan Oroelen lortu zenuen garaipenak ustekabeen harrapatu gintuen. Mendian lehiatzen zenbiltzanik ere ez genekien.**

Niretzat ere sorpresa handia izan zen. Ez nuen emaitza hori espero. Egia da azken urte eta erdian mendian korrika aritzeko zale- tasuna hartu dudala, baina garaipen batekin debuta egitea sekulakoa izan da. Inguruak ondo ezagutzen nituen eta iaztik neukan begiz jota lasterketa. Izena ematea erabaki genuen eta emaitza ikusirik, ez zitzaidan batere gaizki joan.

**Emaitzak oihartzun dexente izan du ezta?**

Bai. Ikaragarria izan da proba bakar bat eginda, zenbat mezu jaso ditudan.

Eta horietako bat oso berezia izan da. Aiaramendiko ordezkariak nirekin harre- manetan jarri baitziren, taldean sartzeko aukera eskainiz. Egin nuen denbora (errekoretik oso gertu) eta daukadan adina ikusirik, potentzial handia ikusi omen didate.

Eskaintzari baietz esatea kosta egin zitzaidan, ez nuelako ur handitan sartu nahi, baina askatasun dexente ematen didatenez, aurrerantzean beraiekin ari- tzeke aukera izango dut.

**Nola oroitzen duzu Oroeleko igoerako garaipenaren eguna?**

Oso urduri esnatu nintzen. Inoiz ez naiz horrela egon. Irteera lerroan erabat uzkurtuta igertzen nuen gorputza, baina zorionez, korrika hasi orduko, askatu zitzaizkidan tentsio guztiak.

Nire erritmoa hartu, eta Ainara Uribarri harrapatu nuen momentuan konturatu nintzen aurrealdean nenbilela. Ondo sentitzen nintzenez, aurrera egitea era- baki nuen eta alboan neraman mutil ba- tek esan zidan lehen postuan nindoala. Amaiera oso polita izan zen, etxe-koak zain baitzeuden helmuga inguruan.

**Ezezaguna zara mundu honetan. Nolakoa da Malen?**

Betidanik kirolari oso lotuta egon den neska gazte bat naiz. Igeriketa eta futboleko aritu naiz bereziki, baina azkenaldian mendian oso gustora nabil. Etxetik dator- kit mendizale- tasuna eta mundu berri bat esploratzeko asmoz sartu naiz hemen. Presio- rik ez daukat, ilusioa da nire erregai nagusia.

**Noiz eta zergatik egin zenuen salto mendi lasterkete- tara?**

Igeriketa utzi izanak eta batez ere, unibertsitateko lehen urteko ordutegi mal- guak, astean zehar men- dira sarritan joateko aukera eskaini dit. Poliki-poliki zale- tzen joan naiz, eta futbolik gabe egon izanak ere asko lagundu dit. Asteburuak li- bre izan baititut nahi nuena egin ahal izateko.

Mendian korrika ibiltzea asko gustatzen zaidala kon- turatu naiz. Naturarekin eta



norbere buruarekin konektatzeko aukera eskaintzen dizu. Badituz lagun batzuk baina, normalean, bakarrik ibiltzen naiz.

### Arduratsua eta oso zorrotza omen zara. Denera iritsi ahal izateko ez dago besterik.

Aurten asko aldatzen zait egunerokoa. Donostira noa bizitzera eta futbolekin adibidez, ostiraletan soilik entrenau ahal izango naiz. Horregatik zalantza asko izan dit jarraitu edo ez erabakitzerakoan. Baina ez nuen jokatu gabe utzi nahi, eta gutxienez, beste urtebete jarraitzea erabaki dut.

Entrenatzailearekin ere hitz egin dut eta lasterketa asteburuetan libre utziko nau. Kirol oso ezberdinak dira eta hasiberria naizen arren, dagoeneko igertzen dut muskularki ez direla oso bateragarriak. Hala ere, ez dut lasterketekin itsutu nahi. Urtean bost edo sei proba egingo ditut gehienera.

Bestelakoan, egunak eta asteak ondo antolatzen saiatzen naiz. Kirolaz gain, beste konpromiso eta zaletasun batzuk ere badituz, eta ez nituzke alboratu nahi.

### Gorbeia Suzien izan da zure bigarren esperientzia. Hor ere garaipena.

Bai. Lehen lasterketako ilusio berdinarekin abiatu nintzen. Hala ere, jakitun izanik beste maila eta distantzia bateko proba zela.

Gozatzea soilik nahi nuen, baina egia esan, dena uste baino dexente hobeto atera zitzaidan. Goranzkoan oso nekatuta sentitu nintzan baina beheranzkoan, gorputzari buelta ematea lortu nuen. Nik uste, beheranzkoan irabazi nuela lasterketa. Lasterketa ona atera zitzaidan. Sekulako giroa zegoen, lagun eta inguruko asko izan nituen ondoan eta egia esan, egunak asko markatu ninduen. Oso pozik eta harro nago egindakoarekin.

Hala ere, garbi daukat hasiberria izanik, edozein momentutan huts egin dezakedala. Horregatik hankak lurrean izan nahi dituz.

## XVI. ALOÑAKO IGOERA

Urriak 17 9:00 Foruen enparantza 22,6 km / + 1868 m

Ia urte terdiko etenaldiaren ostean, urriaren 17an itzuliko da Aloñako Igoeraren ekitaldi berria. Ohiko formatuan aurkeztuko zaigu lasterketa eta besteak beste, hauetxek izango dira kontutan hartu beharrekoak:

### > PARTE-HARTZEA

Dorsal guztiak (327) lehen egunean agortu ziren. Parte-hartzaileen %25 oñatiarrak izango dira (82) eta faboritoetan, Igone Campos, Oihana Azkorbebeitia, Uxoia Irigoyen, Ainara Uribarri eta Nerea Amilibia emakumeetan, eta Imanol Goñi, Iban Letamendi, Aitor Ajuria edo Julen Martinez gizontan, izango dira jarraitu beharreko korrikalari garrantzitsuenetako batzuk.

### > SEGURTASUN NEURRIAK

Lasterketa egunean indarrean dauden segurtasun protokoloak zorrotz bete eta jende pilaketak saihestea gomendatzen dute antolatzaileek.

*«Orain artekoa sorpresa handi bat izan da. Ez nuen espero»*

*«Aurrerantzean Aiaramendiko taldearekin lehiatuko naiz»*

*«Betidanik egon naiz kirolari oso lotua»*

### MALEN OSA ANSA

Korrikalaria



### Urriaren 17an Aloñako Igoerako irteera lerroan ikusiko zaitugu. Zein izango da zure helburua?

Hasteko, erdi presionatuta sentitzen naitzela onartuko dizut. Oroeleko garaipenak eta Gorbeia Suzieneko errendimendu onak oihartzuna izan dute eta asko dira emaitza on bat eskatzen ari direnak. Kontutan hartu beharra daukagu hasiberria naizela mundu honetan eta Aloña oso lasterketa gogorra izango da. Proba sentsazio onekin amaituta konformatzen naiz.

Postu on bat egiteak ilusioa egingo lidake, baina korrikalari oso onak egongo dira eta errealistak izanda, ez dut horrelakorik espero.

### Aurrera begira ze asmo dituzu?

Hasiera batean Aloñakoa izango da aurtengo nire azken lasterketa. Ondoren, udaberrira arte, futbolarekin gozatu nahiko nuke. Mendiko entrenamenduak utzi gabe, noski. Hortik aurrera, ondo bidean, proba dexente egotziko dira. Bat nabarmentzearren, 2022ko Euskadiko Txapelketa aipatuko nuke. Taldeak bertan egoteko aukera emango dit eta ondo iritsi nahiko nuke bertara. ■

 **ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

 **PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10      Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 14 64      Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserriko agia, egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

**IKASTURTE HASIERA** URRIAREN 18AN HASIKO DA

# Igeriketa ikastaro eta uretako jarduerak, bueltan dira Zubikoan

Zubikoa kiroldegiko eraberritze lanek aurrena, eta ondoren etorri zen pandemiak eraginda, ia bi urtez egon gara igeriketa ikastaro eta uretako jarduerarik gabe Oñatin. Berritasun ugarirekin aurkezten da, urriaren 18an hasiko den ikasturte berria.

**B**ueltan dira, garai batean, kiroldegian horenbeste arrakasta izan zuten igeriketa ikastaro eta uretako jarduerak. 2019ko abenduan eten ziren Zubikoako eraberritze lanen ondorioz eta azken hileetan pandemiak ezarri dituen mugak handiak izan direnez, ikasturte berrira arte ezin izan dira aktibatu. Hori horrela, ia bi urteko etenaldi luzearen ostean, berritasun ugarirekin aurkezten da ikasturte berria igerilekuan.

Aldaketa nagusia, instalazioa bera izango da. Bost kaleko igerileku handi bat izatetik, bederatziko batera pasa baita eraikin berria. Eta igerileku txikia ere, lehengoa baino dexente handiagoa da oraingoa. Bada, espazio aldetik aukera gehiago eskainiko ditu instalazio berriak.

Haurren ikastaroetan eskaera handia espero zenez, aurtengo egutegia eta izena-emateko prozesua zertxobait aldatu da. Irailaren 13tik

17ra bitartean, irekiera festarako izen ematea jaso zen. Ikasturteko saioetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izan da. Pasaden astean berriz, irekiera festa ospatzen ibili dira. Jolas eginez, ikasturteari eta igerileku berriari ongietorria egiteko modu bat izan da. Bertan, ikasle bakoitza zein taldetan egongo den zehazten ibili dira monitore eta arduradunak.

Irailaren 28an abilezia taldearen komunikazioa egin zen. Hau da, ikasle bakoitzari posta elektronikoko bidez jakinarazi zaio zein abilezian eman dezakeen izena.

## ABILEZIA EZBERDINETAN SAILKATUTA

Irekiera festan erakutsi zuten abilezia aintzat hartuta, ikasle bakoitza talde ezberdin batean sartuta egongo da. Mailaren arabera, lau talde ezberdin egingo direlarik: Txantxikuak 1, Txantxikuak 2, Txantxikuak 3 eta Txantxikuak



**INFORMAZIO GEHIAGO  
GOIKO QR KODEAN**



4. Guztiak ikasturte osoko ikastaroak izango dira eta gutxienez 10 eta gehienez 12 haur izango dira multzo bakoitzean.

### SAIOAK EGUNERO

Haurren ikastaroak 3 eta 8 urte bitarteko neska mutikoei zuzenduta egongo dira baina azken bi ikasturteetan egon den hutsunea bete asmoz, aurten, 9 eta 10 urtekoak ere sartuko dira eskaintza barruan. Maila eta hautatutako egutegiaren arabera, astelehenetik igandera bitartean egongo da saioetan parte hartzeko aukera.

Astean bi saio izango dira eta iraupenari dagokionean, 45 minutuko klaseak izango dira.

### IZEN EMATEA

[www.zubikoakiroldegia.oñati.eus](http://www.zubikoakiroldegia.oñati.eus) webgunearen bidez edo eta presentzialki kiroldegian egin beharko da izen ematea. Lehentasunaren arabera, hiru taldetan apuntatzeko aukera eskainiko da. Berau burutu ostean, zozketa bidez zehaztuko dira taldeak eta familia bakoitzak posta elektronikoz jasoko du zozketaren emaitza.

Ondoren, urriak 12tik 15era bitartean, izen emateen aldaketak egiteko aukera eskainiko da.

### HELDUEN IKASTAROAK

Helduen ikastaroak ere eskainiko dira aurten. Aurretik baina, urriaren 11 eta 13an ate irekietan ekintzak probatu eta ezagutzeko aukera egongo da.

Hastapena eta hobekuntzako taldeak egongo dira igerian ikasi edo sakondu nahi dutenentzat. Bestalde, uretan jarduera fisikoa egitea gustoko dutenek ere izango dute aukerarik. Izan ere, Aqua Gym, Aqua Training eta Aqua Power saioak eskainiko dira. Bi talde eratuko dira aurreneko bi jardueretan (arina eta gogorra). Aqua Training, intentsitate handia landu nahi dutenendako izango da.

Hiru hilabeteko ikastaroak izango dira eta gutxienez 8 eta gehienera 10 pertsonko taldeak osatuko dira. Ikastaro guztiak, urriaren 18an hasiko dira. Informazio gehiagorako, kontsultatu Zubikoa kiroldegiko webgunea.

## > MOTZEAN

### TXIRRINDULARITZA

## Kostata, baina iritsi da merezitako garaipena

Amaitu da gazte mailako ziklisten denboraldia. Irailaren 11an lehiatu zuten Ulma Aloña Mendiko ordezkariak ikasturteko azken lasterketa. Oñatiko Mikel Deuna saria (Gary Baños memoriale), izan zen oñatiko ziklisten agurrekoa. Nico Alustizak eraman zuen garaipena eta aipagarria izan zen Aimar Madina (4.) eta Aimar Erosarbek (5.) egindako lana.

Azken honek, astebete lehenago, irailaren 4an, Ibarren jokatu zen San Bartolome saria irabazi zuen.



### ORIENTAZIOA

## Malen Osinagaren garaipena

Iparaldeko Ligarako puntuagarria zen I. Campo Orientazio trofeoa irabazi zuen Malen Osinagak irailaren 5ean. F-16 kategoriako emakumerik onena izan zen.

Urriaren 16-17 asteburuan, gazteen Espainiako orientazio txapelketan arituko da Euskadi ordezkatzuz.



### TRIATLOIA

## Sasoi onean jarraitzen du Mikel Ugartek

Emaitza onak pilatzen ari da aurten Mikel Ugarte triatleta. Abuztuaren 8an half distantziako (1,9-90-21) triatloia irabazi ostean, irailaren 4an, distantzia olinpikoko (1,5-40-10) Fromista triatloian bigarrena izan zen Palentzian, eta 18an, Bilbon jokatu zen distantzia erdiko Espainiako txapelketan, elite mailako seigarrena izan zen. Urriaren 16an, Mallorcako Ironmana (3,8-180-42) egingo du PRO kategorian eta honekin emango du amaitutzat denboraldia.



### MENDI LASTERKETAK

## Uribarri azkarrena, Atxondon

Irailaren 18an, Atxondon lehiatu zen Sorginen lasterketako emakumerik azkarrena izan zen Ainara Uribarri. 21 km. eta 1700 metro positiboko proba izan zen.



oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65







BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROLO ARROPAK



# atxi murka

#6. Urria

Hoztu zaio etxea  
zaildu galtzak janztea  
etxeko egurra hotz  
orbel artean laban egiteko beldur  
oinetakoak estu  
janzkera epeldu  
eguna moztu  
telebistari begira aspertu  
laztanen gose da  
eskuei eskuak  
mintzoari belarriak  
zimurrei konpainia



Sortzailea bazara, animatu eta bidali zure lana: [atximurka@gmail.com](mailto:atximurka@gmail.com) helbidera.



Iñigo 'Bull' Biain, Jimmy Irizar, Iker Martinez de Zuazo, Joxeba Aranburu eta Iñigo Ugarte



**Boga** tabernan edo **Elkar** dendetan eta Interneten eskura daiteke *Hegaldia* diskoa (10€)



Bideoklipa ikusteko

Iker Martinez de Zuazok (Latzen, Potemkin, Amonal, Lenao) gidatzen duen 'Iker Martinez eta Zaldi Herrenak' taldeak *Hegaldia* izeneko diskoa kaleratu du. 2017an ekin zion bakarkako bideari Ikerrek *Itzalen mundua* lanarekin, eta 2019an plazaratu zuen bigarren diskoa, *Lurralde berriak*.

Hirugarren lan honetako kantuak ere, melodiak eta hitzak, Ikerrek berak sortu ditu, baina *Zaldi Herrenak* taldeko kideekin elkarlanean ondu ditu lokalean, eta denak batera jotzen grabatu dituzte Garate estudioan, Martxel Arkarazo eta Iñaki Zubiaren laguntzarekin. Nahasketak Zubiak egin ditu eta masterizazioa Jonan Ordorikak, Mamia estudioan. Fredi Pelaezek (pianoa, organoa) eta Ane Ararutik (ahotsa) ere parte hartu dute grabazioan.

Hamar kantu biltzen ditu disko berriak, eta aurreko lanetan Ikerrek jorratu duen soinu akustiko eta organikoetatik asko urrundu barik, abesti elektrikoagoak eta biziagoak aurkituko ditugu lan berrian. "Doinu itsaskorrek dira, leun egiten dutenak aurrera, airean hegan joango balira bezala. Hortik diskoaren izenburua eta azala bera ere", azaldu du Ikerrek.

Testuei dagokienez, sentimenduez hitz egiten dute Ikerren abestiek; harremanen inguruko ñabardurez eta gauza txikien garrantzia handiaz berba egiten du, tonu alai eta jostarian, beti ere.

Diskoaz gain, bideoklip bat ere grabatu dute *Laszlo Haze* ekoiztetxearen eskutik, *Itxi begiak* abestian oinarrituta. Donostiako Londres hotelean grabatu zuten zinemarako erabiltzen den kamerarekin; emozioak bere soiltasunean bizitzeari buruz ari da. Ondoko QRa eskaneatuta ikus daiteke bideoklipa.

  
**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## HITZALDIAK

URRIAK 13 / 18:30

'EKONOMIAREN ORIENTAZIOA'



Hizlariak: Urko Apaolaza eta Adrian Zelaia. Oñatiko EH Bilduk antolatutako 'Hamar Gai, Hamaika Berba' hitzaldi zikloaren baitan. Sarrerak (dohainik) Udalaren webgunean eta Txokolateixan egongo dira eskuragarri. **Kultur etxeko zine aretoan.**

URRIAK 26 / 18:30

'KRISI EKOLOGIKOA ETA KLASA BORROKA'

Sukar Horia kolektiboak emango du hitzaldia, STH (Sasak Ta Hola) taldeak antolatuta. **Antixena gaztetxean.**

## ANTZERKIA

URRIAK 24 /

LUBAKI LAINOTSUA



ATX Teatroa konpainiaren eskutik, *Lubaki lainotsua* ikusizuna (12 urtetik gora). Belaunaldien arteko talka eta komunikazioa jorratzen duen antzezlan. **Santa Ana antzokian**

## OÑATIKO XIII. TRIKITI JAIALDIA / Urriak 23

Lizargarate Elkarteak antolatuta, Oñatiko XIII. Trikiti Jaialdia ospatuko da urriaren 23an. Herriko musika eskolako ikasleez gain, Xabi Arakama, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga, Leire Etxezarreta eta Eider Garro, Ander eta Xabi Malbadi, eta beste batzuk ariko dira bertan. Sarrerak (12€) urriaren 18an jarriko dira salgai Txokolateixan edo enkarguz [lizargarateelkartea@gmail.com](mailto:lizargarateelkartea@gmail.com)



## LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA

Urriaren 24an Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta horren harira ekitaldi ezberdinak antolatu ditu udal liburutegiak.

### HELDUENTZAKO IPUIN KONTAKETA

Eugenia Manzanera narratzaile, aktore eta clown espainiarrak '**Por la boca ¿muere el pez?**' saioa eskainiko du **urriaren 20an**, zine aretoan (19:00). Aforoa mugatua izango denez, txartelak urriaren 9tik aurrera eskuratu beharko dira [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) edo Txokolateixan.



### LIBURUTEGIA KALERA ETA BISITAK

Eguraldiak laguntzen badu, liburutegia kalera ateratzen saiatuko dira, eta, bestalde, herriko ikastetxeetako 4 urteko haurrek bisitak egingo dituzte udal liburutegira, 'Aurorita beti polita' (Lur Korta) ipuin kontalaria gidari dutela.

### TERTULIXAN ETA IDAZKETA LANTEGIA

Udal liburutegiko irakurle taldeek ikasturteko aurreneko saioak egingo dituzte. Euskarazkoa **urriaren 26an** bilduko da *Kafe tristearen balada* ipuin-liburuaz berba egiteko, Miriam Luki dinamizatzailea gidari dela. Gaztelarazko taldea **azaroaren 2an** bilduko da, Monica Leivaren gidaritzapean, *Cisnes salvajes: tres hijas de China* liburuaz gogoeta egiteko.

### OSTEGUN KONTALARIAK

Urtero bezala, hileko azken ostegunetan haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa egongo da. **Urriaren 28koa** 6 urtetik gorako haurrentzat izango da, Lur Kortaren eskutik. Bi emanaldi egongo dira, 17:30 eta 18:15, eta gonbidapenak **urriaren 18tik** aurrera eskuratu ahal izango dira liburutegian.

▲  
Urriaren 9tik aurrera eskuratu ahal izango dira txartelak, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) eta Txokolateixan



▲  
Lur Korta izango da Ostegun Kontalariak saioko protagonista

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK



## MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40



**ERAKUSKETA**

**25 urteko  
IBILBIDE  
GRAFIKOA**

**KULTUR ETXEAN**  
urriaren 18tik 31ra



25 urteko ibilbide profesionalen **JABIER EROSTARBE** artista grafikoak egindako hainbat diseinu egongo dira ikusgai: kartelak, logoak, katalogoak, kamisetak, foileto eta flyerrak...



**Hileko gomendioa**

Ireki liburua eta barnera zaitetz gure planetaren edertasunean! Ikusi Lurra nola sortu zen, zer metamorfosi izan duen eta ingurumenak gaur egun zer erronka dituen; pop-up liburu ikusgarria.

**Lurra Pop-Up**  
Anne Jankeliowitch

**ZINEA**



**OHARRA:**

Helduentzako ostiral gauetako emanaldietan pelikulak jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin emango dira

**Urriak 14 - 18**

**ZINE KLUBA:**  
**Las cosas que decimos, las cosas que hacemos (VOSE)**

**NAGUSIAK:**  
**Benedetta**  
**GAZTETXOAK:**  
**Dartagnan eta hiru mosketzakurrak**



**ORDUTEGIA**

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)  
**Nagusia:** Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).  
Astlehena (19:30 / ikuslearen eguna)  
**Gaztetxoak:** Larunbat eta Igandea (17:00)

**Urriak 7 - 12**

**ZINE KLUBA:**

**First cow (VOSE)**

**NAGUSIAK:**  
**Maixabel**  
**GAZTETXOAK:**  
**Jungle cruise**



**Urriak 21 - 24**

**ZINE KLUBA:**  
**Gaza mon amour (VOSE)**

**NAGUSIAK:**  
**Madres paralelas**  
**GAZTETXOAK:**  
**Oltxiak**



**FARMAZIA**

**ANDUAGA**

**San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16**  
Urriak 6, 7, 15, 16, 17, 25 eta 26.  
Azaroak 3 eta 4.

**IGARTUA**

**Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22**  
Urriak 8, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28.  
Azaroak 5, 6 eta 7.

**GARATE**

**Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58**  
Urriak 1, 2, 3, 4, 11, 20, 21, 29, 30 eta 31. Azaroak 1.

**ULDAIN**

**Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28**  
Urriak 5, 12, 13, 14, 22, 23 eta 24.  
Azaroak 2.



**MERKATU TXIKIA**

**LAN ESKAINTZA** Pertsona bat behar da DBH eta Batxilergoko ikasleei eskolak emateko akademia batean. Idatzi irakasle42@gmail.com helbidera.

**GARAJEA ALOKAGA** Garaje plaza itxia alokatzen da Ramon Irizar kalean. Bidebarrietatik eta Atzeko Kaletik hurbil. Deitu: 619 817 072.

**GARAJEA SALGAI** Garaje itxia salgai Ugarkaldeko 1 zenbakian (21,42m²). Deitu: 626151019 (Julen)

**ODOL ATERALDIA**

**URRIAK 8 / 16:30-20:00**  
Enpresagintza fakultatean

Zuntza 600 Mb | Mugikorra 7 GB  
Simetrika + Dei mugagabeak  
IRAUNKORTASUNIK GABE

BETIRAKO 42 € HILEAN BEZA barne  
2. etxebizitza Zuntza 600 Mb + finkoa 19 €

BANATZAILE BAIMENDUA  
KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN  
Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati  
943 09 06 00



BEZA barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indarran Euzkadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hauetan bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa linea prezioak izango dituzte, GB eta desatxako minutu kopuru berekin. 1GB-ko doako Guuk tarifen kasuan, prezio berria 6,96€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorraren gehienezko kopurua 4 izango da. Linea nagusia kontatzen hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorririk izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finkoa edo mugikorraren nazionalitateko dei mugagabeak, 7GB eta 40MB min. Baga hori gainditzean, abiadura 16 Kb/s-ia jaitziko da. Nahiz duzunaren eman diezakezu baja zerbitzuari, baina bidaratzaila 30 eguneko epean itzul beharko duzu; bestela, 1214-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZA barne). Kontsultatu gureako baldietzak helmer: www.guuk.es



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; KONTU KONTARI

## Sasue bateko eskolan



Orain kontauko doguna duela hirurogei bat urte pasatakua da gure herrixan: egun baten herriko eskolako maisua sartu zan zortzi urteko mutikuen gelan, eta, tarimara igota, hauxe bota eben: *¡Que levanten la mano los que sepan hablar vasco!*

Preguntiaaren aurrian, mutiko danak alkarrerri begira jarritta, isiltasuna nagusitu zan:  
*Zer gurako ete xok maisuak orainguan? Zertara ete xatok pregunta hori?* –danak euren artian.

Maisuak: *Es una encuesta del Ministerio...*

Mutikuak orduan eta isillago, belarrixak tente eta iñor ikararik egin barik, badaezpada be.

Eta, halako baten, mutiko batek altxau eben eskua, erdi lotsatuta, gaizki edo debekauta eguen zeozter egittera fango balitz moduan. Beste danok berari begira, errespetu haundiz: *Nundik urten xok honek?* –jardun eben batek agopeian. Maisuak ikusi eben mutikuaren esku billurtixa eta burua jasota... apuntau eben bere kuadernuan... billur eta lotsa haundi barik: **UNO!**

Eta gela hartako berrogeita bost mutiko ingurutik hamarretik bederatzi euskaldunak ziran. Etera kontua!

## &gt;&gt; ESAERA ZAHARRAK LOTU, EZAGUTU ETA EBALI

- |                            |  |
|----------------------------|--|
| 1. Nagusi askoren astua    | A. garirik ez eta galaots                    |
| 2. Esan, esan              | B. ta bapez zerurako. Adios Martin Murubeko! |
| 3. Hemen xagon/k amillana* | C. abadiak mezetan                           |
| 4. Zazpi seme mundurako    | D. gosiak hil                                |
| 5. Araotz                  | E. fraka zaharren billa dabillena            |

\* Amillana haizia: Gorbeixa aldetik datorren haizia

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



### **Mutiko-mutikotatik musika-bandari lotuta**

**B**a, bai. Halaxe egon da lñaxioren bizimodua: musikariekin eta, batez be, Oñatiko bandiarekin hartu-emun estuan. **Umetatik jarraitu otsan Ibarrondotarren** familixiak gure herrixan euki eben **tradiziñuari**. Argazkixan ikusi leikien lez, **Felix aittajauna, Antonino aitta, eta zazpi urteko lñaxio mutikotxua agiri dira**, tio Eliasekin batera. Eta horreik etziran eta eztira musiko-saga horretako bakarrak izan.

Dana dala, apur bat erreparaitten badozue, **beste familixa batzuetako musikero oñatiarrak** be badagozela konturatuko zarai: hiru anae **Kortabarrittarrak**; beste hainbeste **Zabartetarrak**; **Astigarraga aitta-semiak**, **Gorostiditarrak** letxe, besteren artian. Fotografixia hau 1949xan atara euenian, lñaxio danborrero txikiñak zazpi bat urte eukiko zittuan. Hurrengo bi hamarkadetan klarinetia ez ezik beste instrumentu asko be joten ikasi eben, aitta Antoninoren gidaritzapeian.

Oñatiko udal **musika-bandia deseginddu egin zan 1969xan**. Eta hala iraun eben **1979ko Korpus egunerako barriro osotu zan arte**, baiña **orainguan lñaxio zuzendari zala**. Harrezkero, majo hazi da bandia, jeneraziño zaharrak eta barrixak nahastuaz eta emakumien parte hartze inportantiarekin. Azkenengo **berrogeta bi urtetan makiña bat kontzertu, pasakalle eta beste-lako musikaldi** entzun dira Oñatiko plaza, kale eta bestelako aretuetan lñaxio Ibarrondoren zuzendaritzapeian, sarritan berak sortutako obrekin.

Aurtengo **Errosarixoko domekan** zuzenduko dau lñaxiok bere **azkenengo kontzertu ofiziala**. Batutia esku onetan jareko dau, **hurrengo zuzendarixa Aitor Biain** musiko oñatiar ezaguna izango dalako. Baiña lñaxiok eztau bere pasiñua zihero baztertuko, San Migel parrokixako korua dirijituko ardurari eutsiko xau-eta. Gaurko fotografixa honetan agerketan diran **musikuak 1949ko bandakuak dira**. Goittik behera eta ezkerretik ekumara honeitxek ditzuzue:

Goixeneko illaran: **Joxe Mari Uribarri, Elias Ibarrondo, Bixente Zabarte** eta **Bittor Olalde**.

Laugarren illaran: **Pedro Iraola, Jexus Guridi, Joxe Umerez, Juan Maiztegi, Jabier Zelaia, Juan Soriano** eta **Jexus Igartua**.

Hirugarren illaran: **Joxe Aranguren, Felix Losada, Bixente Igartua, Felix Kortabarria, Bixente Etxezarreta, Juanito Biain** eta **Antonio Zabarte**.

Laugarren illaran: **Migel Igartua, Antonio Gomez, Teofilo Etxegoien, Anjel Zabarte, Juan Kortabarria** eta **Juan Biain** ezkiñan.

Bosgarren illaran, aurrekaldian: **Felix Ibarrondo, Joxe Mari Kortabarria, Rodrigo Astigarraga, Jexus Astigarraga, Antonino Ibarrondo**, zuzendarixa, **Joxe Luis Ruiz de Arbulo, Patxi Gorostidi, Alejandro Irizar** eta **Tomas Uribarri**.

Makurtuta: **Joxe Mari Gorostidi** eta **lñaxio Ibarrondo**.

Argazkixa eta argibidiak lñaxiok berak eskuratu dosku. Milla esker honengatik eta, batez be, hainbeste urtian herrixaren mesedetan egin dozun lanengatik!

# garmendia tejas



///  
Era guztietako teilatu  
eta  
egurrezko egiturak  
///



25 urtetik gorako esperientzia daukagu eta urtean 150 obra baino gehiago egiten ditugu. Euskadin eta inguruetan erreferentzia gara estalkiak eta fatxadak eraiki eta birgaitzeko lanetan.

**Basozabal Industriadea 5 • N-1, km 417**

**20212 Olaberria (Gipuzkoa)**

**T. 943 161 032**

**[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)**



Azkar egiten  
dugu lan



Kalitate-prezio  
onena.



Osoko  
zerbitzua